

uk

188. zenbakia / 2011ko urtarrilaren 31a



Eskerrik asko!



Koldo Iturbe zinegotzia irabazleekin: Arotza taberna, Tellaorri jatetxea eta Portu Zaharra taberna

Aurten 33 establezimenduk hartu dute parte! Getxoko tabernak eta jatetxeak euskarazko txartelekin apaindu dira, eta pintxoak baloratzeko 4.150 boto-txartel zenbatu ditugu. Sekulako giroaz gozatu ahal izan genuen asteburu horretan, piropoz betetako giroa!

Getxo On egin

||. Pintxo lehiaketa

SARIAK

- Epaimahaiaren saria: Tellaorri jatetxea.
- Herriaren iritziz pintxorik onenari saria: Arotza taberna.
- Euskararen erabilera txukunenaren saria: Portu Zaharra taberna.
- Eusko Labeldun produktuekin egindako pintxorik onenari saria: Sustral taberna.

ZOKKETAK

- Bi laguntzako afaria Basalbo jatetxean Zuriñe Agundezen-tzat; Baseri tabernan, "Mexikotik mundura eta Baseritik gure ahora" piropoa idatzi zuen.
- Eusko Labeldun produktuen otzara, Areetako Rio tabernan pintxoak jan zuen Jon Aurrentzat izan da; bere piropoa "Ortuan hartu, ahoan sartu" izan da.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepona Euskarazko Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskarazko Topaguneko partidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Sirenoa, Getxo.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Andres Bilbao.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Artearen mugak, graffitiak.
28. ARGAZKIA. Alfonso XIII transatlantikoa, argazki zaharra.
30. BERBETAN. Nekane Jurado.
34. FOTOGRAFIA. Hodei Torres.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Norabide guztiak dokumentala.
43. MUSIKA. Leioako XI. Pop-rock Lehiaketa.
44. LIBURUAK. Euskarazko liburuak sakelako telefonoan.
45. KIROLAK. Getxo Kirol Sariak.
46. ELKARRIZKETA. Iker Martinez de Lagos.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Sireno pintxo, Portu Zaharra.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Berangoko Ikastola, 1978.
54. AITORMENAK. Miren Urkiola.

Azala: Hodei Torres

www.ukaldizkaria.biz



30 Nekane Jurado

Berbetan

Independentzia, sistema kapitalistaren aurrean alternatibak eraikitzeko; ikuspuntu barrizalea aurkeztu digu.



11 Andres Bilbao



54 Miren Urkiola



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leloa RENTACAR **Tf. 682 466 466**
 bilgaitu-otzatuz **www.leioarentacar.com**

Leioa Berri Auto
 HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02



David Crestelo Kres

> Plasentia Butron Museoko arduraduna

Euskal Herriko kortsarioek ez zuten lapurretarako berezko bokaziorik

“**Gibraltarreko** itsasartetik Gaskoinako Golkoko bizilagunak pasa ziren koka ize-neko itsasontziekin, lapurretan kalte handia eraginez”. Giovanni Villani kronista florentziarraren hitzetan, itsaslapur euskaldunen lehenengo erreferentzia 1304. urtekoa da. Hala ere, XV. mendean lortu zuten euskal piratek lehenengo erregeren batek-edo emandako lizentzia. Horrela esaten dute testigantza askok, Anton de Garay kortsario gorliztarrarenak besteak beste.

Luis Murugarren idazlearen esanetan, “kortsarioek lapurretarako bokazioa berezkoa ez zutela argi utzi beharra dago. Itsasokoarekin erlazionaturiko ekintzekiko berriz bai, arrantza izan baitzen, hasiera batean, euren funtsezko jarduerak. Itsasoa horren hurbil izanik, asko bertan aritu ziren arrantzan eta merkataritzan. Baina atzerriko piratek sortzen zizkieten arriskuetatik defendatzeko armaz hartu eta ondorioz, euren kabuz hasi ziren pinatakerian”.

“Plasentiako” edo “Gaminizeko” Anton de Garay kortsarioaren abenturak hilabete batzuk besterik ez zuen iraun. 1509. urte hasieran A Coruña heldu zen eta bertan gabarra erosi: *La Trinidad*. Cedeirako portuan masteria atondu eta bizkaitarrak ala galiziarrek ziren hogeit bat itsasgizon kontratatu zituen. Itsasontzia hornitu eta armatzeko asmoz, Lugoko Ribadeon bonbarda bat eta lantza batzuk erosi ostean, itsaslapur gorliztarra abenturetan murgildu zen. A Coruña Muxiako portuan ontzi bretoi baten erasoarekin ekin zion pirateriari; ondoren, Finisterreko uretan, karabela baten aurka oldartu zen eta segidan Prior lurmuturrean beste bi itsasontziren aurka jo zuen. Espainiar ontziak ere eraso omen zituen, eta ondorioz 1509ko urriaren 31n Galizian urkatu zuten.

Juan Jose Cucullu kapitain plentziarrak zorte handiagoa izan zuen: 1799. urtean *Veloz Maria tartana* fidantzan utzitako kai-



noiez eta beste arma batzuek baliatuz, itsaslapurretari ekin zion. Honen helburua ingelesen aurka jotzea eta bere ontzia defendatzea zen. Malagatik Almeriara abiatu zen, bertan brea kargatu zuen eta Cadizen 2.200 anega gari Bartzelonara eramateko asmoz.

Norakora heldu orduko, ingelesek itsasoan harrapatu eta Menorcako Mahon portura eraman zuten. Fidantzan utzi zizkieten

armez, merkantziak eta itsasontziak ere jabetu ziren. Garai hartako legeen arabera enkantetan jarri zituzten. Cucullu libre utzitakoan, Sevillara joan zen. Bertan, itsasontzia eta Gobernuak utzitako armak galtzeagatik epaitu zuten. Absolutzioa eman ziotenean, Malagara abiatu zen prestamua bueltatzeko ezintasunaren berri ematera. Honek errugabetu, eta espetxetik libre geratu zen. ○

gu geu

Sarajevotik maitasunez

Areeta eta Romo inguruko lagunek Sarajevo izena eman zioten Metro geltoki alboko aparkaleku beldurgarriari. Rally gidariak baino abilagoa izan behar zen kotxeagaz leku bila sartzen zena; gehienetan lekua topatu barik eta sartzean baino egoera emozional arriskutsuagoan urtetzen zen “koittaua”. Zorionez, aparkalekua asfaltatu dute eta abentura egarriz direnak, ez dute inguru horretan zer eginik aurkituko.

Baina, ez pentsa Sarajevo eta Getxoren arteko elkartasun sarea eten danik. Orain, Martikoena 16. zenbakian aurkituko duzu Sarajevo. Aurreratu genuen bezala, poliziaren egoitza izan zenean (“maderuena” izena eman diote hemengo zenbait bizilagunek) sortzen dugu orain gure aldizkaritxo maitea. Baina, ordenagailu aurrean eseri eta zuretzat letra hauek idatzi ahal izateko, eskaileratako mamuagaz, ke-laino hiltzailea, aire kutsakor beldurgarriagaz, zulagailu zarata gorrotagarriaz eta langileen kantu estereofonikoakaz borrokatu behar dugu aurrena. Hala ere, betiko maitasunez eta zugana heltzeko gogoz egin dugu 2011ko lehenengo zenbakia. “Mekaguen!”-en bat irakurtzen baduzu letra artean, sentitzen dugu; kontuak Forua kaleko 1. zenbakiko bizilagunei eskatu.

UK-ko lantaldea



ALGORTAKO PORTU ZAHARRA, 2011KO URTEARRILA

Sirenoa bueltatu da/ Algortako Portu Zaharrak aspaldiko laguna du Sirenoa. Getxophoto argazki jaialdian erakutsitako irudi ezaguna Portu Zaharrera itzuli da eta urtebetez uger egingo du bertako uretan. Izan ere, Getxoko Udalak aldi baterako eskuratu du Marcos Lopezen *Sireno del Rio de la Plata* lan fotografikoa. Uger egitearena ez da txantxa, mareak gora egin ahala irudia estaltzen joango baita, eta alderantziz. Lagunari ongi etorria egiteko Sireno Pintxoak sortu dute Bilboko Etxanobe jatetxeko sukaldari bik, inguruko tabernatan dasta daiteke. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Iraganez doa denbora* beti / **NEGURI, EL CARMEN KALEA**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



adi lagun!

Otsailetik aurrera
pasatuko dizugu urteroko
harpidetza kuota

- edozein argibidetarako deitu telefono honetara: 94 491 13 37

uribitakora > ume-jolasak



Larrabasterra (Sopela), 2010eko uztaia

Testua: **Arrate Illaro**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Larrabasterran jasoa zuri-beltzeko estampa John Waynen itxura duen mutil gazte honen planta; iruditzen zait Western filmeen protagonista galanta, zaldirik ez du izango, baina pistola ez zaio falta.

2

Berdin eskuko pistola edo metrailleta lodi... Aurrean jartzen denari tiro-tori! Tiro-tori! "Umea da (e)ta jolasten dabil" entzun diogu askori; umea dela badakit, baina zein jolas mota da hori?

3

Praka motzetan hasita pistolari eragiten atzean ezkutatuta eskuetatik ezin ken... Baina helduak izanik ere askok ez dute jakiten, pistola batek ez gaituela handiagoak egiten.

* Doinua: sor lekua utziz gero

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz

17. korrika > abiatu da Korrika Kulturala, hainbat lehiaketa barne



Apirilaren 17an amaituko dira Korrika eta kultur ekimenak; info+: www.korrika.org

Badator! Pausoz pauso, badator 17. Korrika, Gose taldearen kantuak iragarri digu. "Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!" lelopean Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du apirilaren 7tik 17ra, Trebiñutik urten eta Donostiara heldu arte. Baina dagoeneko badago zer egin hemendik eta apirilera; izan ere, Korrika Kulturala abiatu dute eta ahalegin militantea omenduko dute ekimen horregaz. "Beste modu batera plazaratzeko zailtasunak izango lituzketen lanak" ere eskainiko dituzte: Sekula bai, LKM, Biribilketa eta Hilezinak antzezlanek, Pupu eta Lore, Hura ez da lekua eta Xentimorik gabe ikuskizunek berotuko dute giroa Korrikari begira. Baina hori dena ez da

nahikoa eta lehiaketa bi antolatu dute Korrika Kulturalako arduradunek: Euskal klip eta Euskalaketa. Bideo-klip lehiaketa da lehena, Euskal klip, "berezia eta barrizaita". Bideoek gehienez hiru minutu iraun behar dute eta 17. Korrikaren leloa agertu behar da. Otsailaren 25a baino lehen bidali behar dira korrika17@gmail.com helbide elektronikora. Mac gailu bat izango da saria. Bestalde, Euskalaketa bakarrik lehiaketa ere abiatu dute, Euskal Herriko Antzerkizale Elkar-teagaz batera. Euskarazko antzerkia eta aktore amateurrei bultzada eman gura diete. Korrikaren amaieran izango da finala, apirilaren 17an, Donostiako jaialdian. o

Ikuskizunak**SEKULA BAI**

Antzerkia eta kabareta nahasten ditu. Yoghurina Borova, Galder Perez, Lander Otaola, Loli Astoreka eta Mikel Losadak antzeztuko dute, Itziar Lazkanok zuzendu.

- Otsailaren 17an, Bilboko Alondegian.

HURA EZ DA LEKUA

Antzerkiari atxiki zaizkio poesia eta musika Metrokuadroka kolektiboaren obran. Asier Sarasolak eta Oier Guillanek idatzi dute.

- Otsailaren 24an, Erretereria Hiria kulturgunean.

HILEZINAK

Kukubiltxo taldearen azken lana da eta Gotzon Barandiaranek idatzi du. Elebitasunari buruzko gogoeta egin du.

- Martxoaren 4an, Mungiako Olalden.

BIRIBILKETA

Koldo Amestoy ipuin kontalaria bakarlarri ibiliko da ikuskizun honetan.

- Martxoaren 12an, Luhusoko Harri-Xuri antzokian.

XENTIMORIK GABE

Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak antzeztu eta Asier Sotak zuzendu du: antzerkia, musika eta umorea.

LKM

Larria, kutsakorra, mendebaldekoa LKM, Patxo Telleriak eta Jokin Oregik idatzi eta Mikel Martinezek antzeztua.

ONGI ETORRI PUPU ETA LORE

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizunak ere osatuko du Korrika Kulturala.

- Igorre, Zangoza, Erretereria, Izpura eta Arabako Errioxa.

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]


plentzia > aterpea bota dute barria eraikitzeko, noiz ez dakitela



Orube zabala lotu da aterpea zegoen lekuan

Bizkaiko Aldundiak kudeatzen zuen azken aterpea eraitsi zuten abendu akabuan, Plentziakoa. Aldundiak asmoa dauka aterpetxe barria eraikitzeko, baina egitasmoa gelditu dute, Kultur sailak dioenez, egoera ekonomikoa dela-eta. Baina aterpetxe barriak kudeaketa barria ere ekarriko ei du, izan ere, eraikina Aldundiarena izango bada ere, zerbitzua kanpoko enpresa batek kudeatuko omen du. Ondorioz, Bizkaian ez da egongo kudeaketa publikodun aterpetxerik. Baina herritar guztiak ez datoz bat Aldundiaren erabakiagaz eta eraikina egoera onean zegoela salatu du hainbatek. Udalaren eta erriberaren ondoan zegoen eraikinak aipatzeko moduko historia zeukan. Frankismo sasoiari, esaterako, Falange eta JONS alderdiaren Seccion Femeninak erabili zuen, oporraldietan. Gerora, erabateko aldaketa jasan zuen eta Euskal Girozte Barnetegi izan da urtetan. Zer izango da hurrena? Lehenik orube, ikusiko ondoren... ○

horoskopoa > ophiuco delako izar multzoa horoskopotan sartu guran



Azaroaren 30etik abenduaren 17ra kokatzen ei da Ophiuco

Rappel eta gisako iragarleak eskuak igurzten hasi dira negozioa zabaltzeko itxaropenez; izan ere, Ophiuco delako izar-multzoa horoskopotaren 13. zeinutzat daukate batzuek; apokalipsiaren zeinutzat ei zeukan Nostradamusek. UK-kook ez dakigu asko horrelako kontuez, baina gure horoskopoa egiten duen sorginari ez dio asko axola. Uribe Kostan gure horoskopoa dugu, bertako ohitura eta usadioetan oinarritua: otsoaren ulua entzuten dugu basoan, hostoak erortzen dira haizeak adarrari eragitean eta negua iristen denean, ogia egiten dugu gariz, aitzurrez lantzen dugu lurra, hazia ereiteko eta meta osatzen dugu udan belarra moztu ondoren. Gure horoskopoa da eguneroko bizipena, norberak egiten baitu bidea. Beraz, lasai egon, gure horoskopoa ez du-eta aldaketarik jasango. Gora bihotzak! ○

[erretratua]



“Lehen egiten zen legez, betiko kantak abesten ditugu: ixil-ixilik dago, boga-boga...”

Andres Bilbao > Udondoko txikiteroa

Ohiturari jarraituz, herrietako plazak kantuz beteko dira otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. Erritmoa markatzeko makila eskuan, eta txikitoa bestean, kalez kale ibiliko da Andres Bilbao ere, Udondoko txikiteroakaz batera: “*Gu ez gara abesbatza profesionala, koadrilan kantatzeko batzen garen lagunak baino ez gara*”. 28 urte bete dituzte Santa Ageda bezperan abesten, euren berbetan, “musikaz lar” ez dakiten arren. Egun berezia izaten da Udondoko txikiteroentzat, hilabeteko saioen ostean, 30 lagun baino gehiago batzen direlako kantuan: “*Abestu eta gero, koadrilako batek porrusalda afaltzera gonbidatzen gaitu guztiok*”. Gabonetan, auzoko jaietan, eta ospakizun berezietan ez ezik, astelehenero Udondo Tabernan batzen dira, auzoko tabernetatik poteoa egiteko: “*Lehen egiten zen legez, betiko kantak abesten ditugu: ixil-ixilik dago, boga-boga, maite eguzki eder...*”. Euskaraz eta gazteleraz abesten dute, Luis Angulok eta Jose Ignacio Sarriak eraturako Leioako kantutegiari jarraituta: “*Tabernetan gaudenean jendea batu egiten zaigu*”. Gazteakaz, baina, Bilbao ez da oso baikor agertu: “*Pena da, gazte oso gutxi animatzen baita kantatzera. Gainera, abesten hasten direnean, ez dituzte kantak amaitzen*”. Otsailaren 4an, behintzat, badakizu, koplak akaburaino kantatu! “...Agate Deuna bitarte dala, ez dozu izango kalterik... bat, bi eta hiru... eup!” ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Diru kontuak 2011ri begira

Aurtengo aurrekontua 2010ekoa baino %9,6 handiagoa izango da; ez da zorpetzerik aurreikusten eta inbertsioak proiektu estrategikoetarako izango dira

Guztira, 97,3 milio eurokoa izango da 2011ko aurrekontua; 13,8 milioi emango dira inbertsioetarako eta ez da zorpetzerik egongo.

Urtero bezala, Gabonetako ajea pasatu-takoan, diru kontuak izaten dira nagusi Udalean. Urtarrila hasieran aurkeztu zituzten 2011ko aurrekontuak eta hil akabuan eroan zituzten udalbatzara onartzeko, EAJ eta PSEren aldeko bozka aurreikusiz (aldizkari hau, aipatutako udalbatza egin aurretik itxi da eta ezin dugu bertan hartutako erabakiaz informazio gehiago eskaini). Aurtengo aurrekontu egitasmoak, joan den urtekoa baino 9 milioi euro gehiago aurreikusten ditu, %9,6 handiagoa izango da. Udal iturriek esandakoaren arabera, *“zorpetzerik gabe eta 4 urteetan udal zorra euro bakar batean ere igo barik”* zehaztu dira aurrekontuan. Gainera *“kutsu soziala”* dutela eta *“Getxo modernizatzeko eta eraldatzeko prozesuan”* lagungarri izango direla gehitu zuen Imanol Landa alkateak aurkezpenean. Guztira 97,3 milioi euroko aurrekontua aurreikusi dute.

Hiru arlotan banatuko da inbertsioa, 13,8. Alde batetik, Gizarte Zerbitzuetan, elkarteei bideratutako diru-laguntzak handituz. Bestetik Ekonomia eta Sustapenean inbertituko dute *“enplegua sortze aldera”*. Honegaz lotuta, ekonomia sustatzeko aparteko Planari 1.000.000 euro eskainiko zaio.

Azkenik, Hirigintza izango da inbertsioaren hirugarren protagonista. Arlo honetan, proiektu estrategikoak egingo



355.231 euroko aurrekontua aurreikusi dute Romoko Kultur Etxerako

da aurrera. Batetik 2013ra bitartean bete beharrekoak daude: Getxo Antzokia (8,1 milioi), Romoko Kultur Etxea (355.231 euro), Romoko Haurreskola (606.000 euro). Bestetik, Areetako Gelto-kiko Plaza proiekturako (3.000 euro),

«Hiru arlotan banatuko da inbertsioa: Gizarte Zerbitzuak, Ekonomia eta Sustapena eta Hirigintza»

HAPOrako (179.000 euro), bideetarako (750.000), saneamendurako (150.000 euro) eta Kirol Portuko kortesiazko lur zingiratsu barrirako (300.000 euro) erabiliko da dirua.

Udal tasei dagokienez, bere horretan mantenduko dira eta batzuk, zaramarena adibidez, %35 jaitziko da. Hazkunde

nagusienak, Udalkutxa-Udal Finantzazio Fondotik datoz.

2011ko aurrekontuak ez du zorpetzerik aurreikusten: *“Ez hori bakarrik, 2007-2011ko legegintzaldian Getxo modernizatzeko prozesua bultzatu dugulako inolako mailegu berririk gauzatu gabe eta udal zorrena euro bat ere gehitu gabe; eta gainera aurreko legegintzaldietako 13 milioi euroko zorra amortizatu dugu”*. Gastu korronea ez da gehitu ezta jaitzi ere. ○

Datu batzuk

- **97,3 milioi euro:** aurrekontua guztira
- **%9,6:** gehiago 2010ean baino
- **13,8 milioi:** inbertsioetarako
- **Udal tasak:** bere horretan mantendu

1.600 metro koadro

barrututa, Fadurako zerbitzu-karta hobetzeko



Fadura Ostalaritza eta Txikigunea hartzen ditu azpiegitura barriak

Orain hil bi zabaldu zituzten ateak, Getxo Kirolak bultzadagaz, Fadura Ostalaritza eta Txikigune zerbitzuek, biak Fadurako kiroldegian. 1.600 metro koadroko eremua erabili da horietarako. Guztira 1.820.000 euro inbertitu dira proiektuetan; horietatik 700.000 Bizkaiko Foru Aldundiak eman ditu, enplegua eta ekonomia sustatzeko. Egitasmoek helburu hirukoitzak dute; kiroldegiko erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskaintzea, lana topatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako kalitatezko enplegua sor-tzea eta Getxon estrategikoa den ostalaritzaren sektorean profesionalak trebatzea. Horretarako, datozen 6 urteetan 26 lagun kontratatuko dira.

Fadura Ostalaritza guneak, kiroldegia-oren ordutegi bera izango du. Gosariak,

ogitartekoak eta menu plater solteak eskaintzen dituen taberna eta 80 mahaikiderentzako lekua eta asteburuetan ospakizunak egiteko aukera ematen duen jatetxeaz gain, langabetuei eta herriko enpresa sektoreko profesionali bideratutako ikastaroak emateko gunea jarri dute.

Txikigunea, astelehenetik barikura 16:00etatik 21:00etara eta, asteburuetan, goiz eta arrastiz egongo da zabalik. 3 eta 12 urte bitarteko umeak zaintzeko zerbitzua eskaintzeaz gain, arrastietan kultur eta aisialdi ekintzak (tailerra, antzerkiak e.a.) antolatuko ditu. Oporraldietan zerbitzu berezia emango du, neska-mutilak goiz zein arrastiz zaintzeko. Fadura Ostalaritzagaz batera, urtebetetze ospakizunak antolatzeko aukera emango dute. ○

ETORRI BARRIENTZAKO TAILERRAK

Getxon Bizi etorkinak hartzeko programaren barruan, hiru tailer antolatu ditu Udalak. Urtarrilaren 30ean elikadura eta sukaldaritza tailerra hasiko da. Martxoan, apirilean, ekaina eta uztailean informatika landuko dute; ekainean eta uztailean gainera, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaren inguruko saiok egingo dituzte. Eskolak domekian dira eta informazioa 94 466 01 51 telefonoan eska daiteke.

SANEAMENDU SAREA URIOLAK EKIDITEKO

Gobernu Taldeak urtarrilean esandakoaren arabera, euriteek eragindako ibaiaren gainezka egitean eta ur-putzuen arazoa *“konponduta dago arrisku handiena duten udalerriko auzoetan”*. Bost milioi euroko aurrekontua izan duten lanek, Saneamendu Sarea Hobetzeko eta Barrizetako bultzatutako Ezohiko Planaren harira egin dira. Plan horren barruko lanek, hogeita hamarren bat jarduera jasotzen dituzten udalerriko toki estrategikoetan: Romo, Neguri, Makaleta, Maidagan, Sarrikobaso, Aldapa, Ollarretxe eta Ereaga. Udalak bizilagunen artean informazio-liburuxka banatuko du Planaren inguruko jardueren barri emateko.

GURASO ESKOLA BARRIZ MARTXAN, 8 IKASTARO

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurren familiei bideratutako ikastaroak antolatzen dituen Guraso Eskola martxan da barriz ere. Gurasoei laguntzeaz gain, euren seme-alaben artean ahalmen, jarrera eta bizimodu osasuntsuak sustatzera animatzea du helburu eskolak. Zortzi dira 2010-2011 ikasturtean landuko dituzten gaiak: *“Familia mugak eta arauak”*, *“Sexualitateari buruz hitz egiten”*, *“Familiaren barnean gertatutako gatazka konpontzea”*, *“Adimen emozionala”*, *“Autoestima hobetzen”*, *“Sariak eta zigorrak”*, *“Nerabetasunarekin nola bizi”* eta *“Familiaren harremana hobetzea”*. Ikastaroetan parte hartzeko ez da aurretik izena eman behar; nahikoa da, lehenengo egunean aukeratutako zentrora joatea.

Info+: www.getxo.net / 94 466 01 51

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak

Sagastikoebue Industrialdea
Etxalde 2 - Pabio: 11
48330 Gordiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 945 773 144



<http://www.etxeart.com>

Naiara Goikoetxea > *Emory lane* erakusketa

“Argazki edo irudi bat, oroitzapenak gordetzeko kutxa izan daiteke”



Bilboko Belaza Gallery-n bisita daiteke Naiara Goikoetxearen erakusketa

Ez da Naiara Goikoetxea (Bilbao, 1983) artista algortarrarengana hurrentzen garen lehenengo aldia; 2008an bere argazkiak erakusteko aukera izan genuen, Fotografia atalean. Oraingoan, Bilboko Belaza Gallery aretoan (Arrikibar Plaza, 5) martxoaren 14a arte ikusgai egongo den erakusketak eroan gaitu beragana. Argazkiak, marrazkiak eta diseinu grafiko lanak bildu ditu Goikoetxeak *Emory Lane* izeneko erakusketarako. Oroitzapenak ardatz hartuta, bere sentipen eta bizipenetatik bidaia-atzera gonbidatzen du, basoan galtzen den ikuspegi intimista eskainiz.

—*Memorabilia* izena eman diozu erakusketan bildutakoari; zer esan gura duzu horregaz?

—Memorabilia oroitzapenak zerikusia duten objektuak dira. Argazki edo irudi bat, oroitzapenak gordetzeko kutxa izan daiteke eta norberarentzat esangura handia izan dezake. Ingelesean erabiltzen den berba da.

—Hortik dator *Emory lane* izena?

—Oroimenagaz zerikusia duen berba baten bila egon nintzen. Hasieran, berba gatzeleraz izatea gura nuen; baina, inge-

lesean, nik transmititu gura nuenagaz zerikusia duen berba aurkitu nuen. *Memory lane*, oroitzapenen kutxa izendatzeko erabiltzen dute. Berbaz berbako itzulpena, “oroimenaren bidea” da; metafora polita iruditu zitzaidan, memoriaren bidetik paseatzera gonbidatzen dut. “M”-a kendu nion, oroimenaren ibilbidetik paseatzeko duen alde hunkigarria azpimarratzeko.

—Diziplinak nahastu dituzu.

—Denarik egin dut beti, ez naiz inoiz diziplina bakarrera mugatu. Oroimena-

gaz eta atzera begiratzeagaz lotutako erakusketa denez, atzera begiratu eta egindako guztia aztertu gura izan dut.

—Zer aurkituko du Belaza Gallery-ra hurbiltzen denak?

—Zati bi ditu. Nire lanen puzzle-a egin dut. Erakusketarako prestatu dudana argazki bildumetako batek, indar handia hartu du eta erakusketaren erdia bete dut horregaz. Basoan, gauzez egindako bilduma da. Badaude airean utzi dudana hainbat sekretu, lagun batzuk bakarrik ulertuko dituzten elementuak. Horregatik, erakusketaren inaugurazioan, bideo bat

«Basoan, gauzez egindako bildumagaz erakusketa erdia osatu dut»

jarri nuen; jendeak ikus dezake lagunak basora eroatea eta argazkiak egitea baino gehiago dela bilduma hori.

—Zertan datza basoko bilduma hori?

—Nire buruan irudiak agertzen joan zirenean, identifikatzen ez nituenak baina hor zeudenak: argi gutxi, basoa, zenbait lagun aurpegiak... ez zuen beldurragaz zerikusirik. Gogoan eta ametsetan agertzen zitzaidan lekua zen. Leku horretan, maite nituen pertsonak egotea gura nuen. Nire aitagaz leku horren bila joan nintzen, txikitan jolastera joaten ginen mendietara. Fika inguruan aurkitu nuen gogoan nuen lekua. Gau batean, lagunak deitu nituen bertara; giro berezia sortu zen, ez baita ohikoa bariku batean lagunak basora joatea. Pertsona bakoitzari objektu konkretu bat eroan zezan eskatu nion. Horregatik, talde argazkian, ezkutuko sinboloak daude. Bertan sortutako giroa ondo islatzen da bideoan; hunkigarria eta barregarria da aldi berean. ○

Info: www.belazagallery.com

Kontzertu interaktiboak

Neguko Bidaiak kontzertu sorta martxan egongo da Andres Isasin hilaren 18a arte



Andres Isasi Musika Eskolan izango dira kontzertu guztiak, 19:15ean

Berbaldiak eta kontzertuak. Elemen-tu bi horiek nahasten ditu Andres Isasi Musika Eskolak antolatutako *Neguko Bidaiak* kontzertu-berbaldien hirugarren edizioak. Ordubeteko kontzertuak ganbara musikan ibilbidea egitera gonbidatu eta amaieran horren inguruan hausnartzeko aukera ematen dute; publikoak parte har dezake, iritzia eman edo galdarak eginez. Emanaldi guztiak Eskolako auditorioan dira, 19:15ean eta sarreraren prezioa lau eurokoa da.

Urtarrilaren 21ean egin zuten lehenengo kontzertua; Khantoria taldeko lagunek obra barrokoak eskaini zituzten.

28an, Alboka 2.1. proiektua aurkeztu zuten, Ibon Koteronek, Xabier Valleketak eta Ruben Isasik. Otsailaren 4an, Naroa Intxausti (ahotsa) eta Mario Lerena piano-jotzaile getxoztarraren txanda izango da. Otsailaren 11n Maracaiboko Ronner Urbina biolin-jotzailea eta Maria Alonso-Allende piano-jotzailea entzun ahal izango dira. Kontzertu-ziklorari GINTONIC taldeak emango dio amaiera 18an. Mario Clavelek, Getxoko Musika Eskolako flauta irakasleak, sortu du azken hori. Ramon Escobar gitarrajotzaileagaz, David Martin bajistagaz eta Eduardo Lazurtegi bateriagaz taularatuko da. ○

SANTA AGEDA BEZPERAN AMA LURRARI DEIKA

Otsailaren 4an, santa Ageda bezperan, makilak hartu eta kalez kale edo baserri baserri abestuz ibiliko da herriko hainbat talde. Alde batetik, Algortako Bertso Eskolako lagunak, baserri baserri abestuko dute, joan den urtean bezala; hori prestatzeko, martitzen batzen dira 20:30ean Aldain. Urtero bezala, Kultur Etxeak ere, abesbatzen lehiaketa antolatu du. Zonalde bitan banatuko dira: Areeta-Romo eta Algorta-Andra Mari. Azken horiek, abesbatzen baterako ekitaldia egingo dute 20:00etan Geltokia plazan.

GAZTE-TAILERRAK EKAINA BITARTEAN

Gazteria Sailak ekaina bitartean egingo den tailerretan izena emateko epea zabaldu du. Sei tailer antolatu dituzte guztira eta, horietako bi barriak izango dira. Gaztelekuan egingo duten *Perkusio tailerra* izango da hasten lehena; otsailaren hasita egingo da 17:30etik 19:30era. Martxoan, *Makillaje eta karakterizazioa, Jakien Manipulazioa eta Sukaldaritza: ikasi bizirauteko* ikastaroak egingo dituzte, azken biak 18 eta 30 urte artekoek zuzenduak. Maiatzean eta ekainean, kandelak egiteko tailerra eta surf ikastaroa egingo dituzte, 10 eta 17 urte bitartekoentzat. Izena emateko bost aukera dago: gaztebullegoa@getxo.net helbidean, 667 600 740 telefonora sms bat bidaliz, www.getxo.net web gunean, Gazte Bulegoan edo 94 466 03 53 telefonora deituz.

GETXO ZUZENEAN AUZOZ AUZO OTSAILEAN

Zuzeneko musika emanaldiek tabernaz taberna jarraitzen dute Udalak antolatutako *Getxo Zuzenean* ekimenaren barruan. Otsailaren Moby Dick bakarlarri algortarra izango da lehena, 20:00etan Algortako Satistegi tabernan. 10ean, Romoko West Side Bar-en entzun ahal izango da Last Night taldea ordu berean. Hilaren 17an, The Borthdood taldearen txanda izango da Areetako Glass kafetegian, 20:00etan.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Berbalamiñe Euskara Elkartea

“Euskaldunei eta euskara ikasleei eremuak eskaini gura dizkiegu Leioan euskaraz bizi ahal izateko”

Otsailaren 4an ekingo die Berbalamiñe Euskara Elkartek aurtengo ekimenei. Lehenengoz aterako da Agate Deuna bezperan abestera, Berbalagunakaz. Baina egitarau mardula prestatzen dabilta urte honetarako: ikastaroak, tailerrak eta jaialdiak besteak beste.

—Agate Deuna bezperan aterako zarete lehenengoz, zelan bada?

—Leioan Berbalagun egitasmoa abiatu zen urrian, Lami AEK eta Udal euskaltegiak eta hirurok gabiltza egitasmoa kudeatzen, Udaleko Euskara Zerbitzuak ere parte hartzen du. Aitzakia horregaz pentsatu genuen Euskara Elkartean Berbalagunei ere leku egitea. Aurten Agate Deunan herrian zehar kantuan ateratzea erabaki genuen. Aurreko egunean entsegu txiki bat egingo dugu Lami AEK euskaltegian, otsailaren 3an izango da. Biharamunean 18:30ean lotu gara eta ezinbestekoa izango da baserritarrez jantzea. Erdigunean ibiliko gara, plazaz plaza. Amaitutakoan mokadutxoak jan eta poteoa egingo dugu tabernaz taberna, trikitiak eta panderoak girotuta.

—Olentzero egunean ere urten ziren Berbalagunak kantatzera, ezta?



Berbalamiñek antolatutako kantu-afaria

—Bai, hori euren kabuz antolatu zuten, abenduaren 23an. Taldetxo bat bildu zen elkarregaz abesteko.

—Berbalamiñe euskara elkartea da, leioztar guztiek ez dute ezagutuko agian, zein da zuen egitekoa?

—Gure helburua da Leioa euskalduntzea, euskara komunitatea handitzea eta euskaldunei zein euskaraz ikasten dabiltzanei eremuak eskaintzea Leioan euskaraz bizi ahal izateko. Sei lagun elkartzen

gara astero, baina bazkideak dauzkagu.

—Eta hori lortzeko zer egiten duzue?

—Berbalagun egitasmoan parte hartzeaz gainera, ekimenak antolatzen ditugu. Ikastaro bi prestatzen gabiltza, produktu ekologikoen sareari buruz hitzaldia egingo dugu, ekainean Txixiburruntzi Eguna ospatuko dugu, bertso-afaria eta kantu-afaria ere egingo ditugu. Gainera, aurten Korrika daukagu eta Korrika Batzordean ere lagundu ohi dugu. ○

Lamiakorako plana

Etxebizitzak, kultur aretoa, eliza eta eskola iragarri ditu Udalak garbitutako orubean



Zerbitzu barriak Lamiakon eraiki gura dituzte, Txopoetako etxe barrietatik urrun

Lamiakon etxeak eta lantegiak bota ondoren geratu den orubean, metro geltokia eta Areetan pentsatu baino gauza gehiago egiteko asmoa du Udalak.

Hiri-antolamendurako plan nagusia aldatu du, adibidez, 228 etxe egiteko, babes ofizialeko 92 eta libreak besteak. Hasieran erdia iragarri zituzten, libreak, baina akordioa egin dute enpresa eraikitzaileagaz: hark 9.000 metro koadro emango ei dio hornikuntza publikorako.

Udalak asmoa dauka Pinueta, Ibaiondo, Txorierrri, Lamiako eta Txopoetarako kultur etxe barria egiteko, trenbidearen bestaldean dagoen Lamiako Antzokiaren ordez. Artazako zaintzailearen etxe zena, Pinuetako txokolatetzako etxea,

Lamiakora lekualdatuko luke, atari gisa. Kultur etxea handiagoa izango ei da, Udal bulegoagaz eta elkartentzako aretoakaz. Eliza eta eskola ere lekualdatu gura ditu, baina ez du zehaztu zer egingo duen trenbidearen bestaldeko horniturakaz, ez eta Pinueta zein Txorierrriko kultur aretoakaz. Oraingo eskolan bulegoak iragarri ditu. Hamar urtetan garatzeko auzorako plan osoaren baitan kokatu dute, 35 milioi euro kostako dena. Haren arabera 270 etxe libre, aparkalekuak, parkeak eta plazak egingo dituzte.

Eraitsitako 165 etxeetako auzokideak Txopoetako etxe barrietan berkokatu zituzten iaz, orubetik urrun, Txopoetan ordea ez dute zerbitzurik iragarri. ○

ZINEGOAK OTSAILAREN 2AN ETA 3AN

Zinegoak Bilboko gay-lesbo-trans nazioarteko zinemaldiak Leioa bisitatuko du beste behin ere. Bilbon urtarrilaren 22tik 30era ospatu dute zine jaialdiaren zortzigarren edizioa, baina Leioan otsailaren 2an eta 3an emango dituzte hainbat film, Kultur Leioan. “Goddak mit navn er lasbick” dokumentala emango dute 2an, danieraz eta gaztelerazko azpitoluakaz, baita “Me gustaria estar enamorada... a veces me siento tan sola” film laburra ere. Otsailaren 3an, barriz, film labur sorta bat eskainiko dute.

Info+: www.kulturleioa.net

IZARREN DISTIRA OTSAILAREN 5EAN

Izarren distira talentu lehiaketa antolatu dute Leioak eta Erandiok, 12 eta 18 urte bitarteko gazteen talentua saritzeko asmoz. Otsailaren 5ean egingo dute finala Kultur Leioan. Dagoeneko egin dituzte hautaketa probak eta finalistak arituko dira taularen gainean. Edozein motatako ikuskizuna lan daiteke lehiaketa honetan: antzezlanak, kanta, dantza, bertsoak. e.a.

KULTUR ETXEETARAKO 240.000 EURO

2011ko aurrekontuan Kultur Leioako eta auzoetako kultur aretoen programaziorako 240.000 euro gorde ditu Leioako Udalak. Horietatik gehiena Kultur Leioako programarako izango da: 82.000 Auditoriumeko eta Ambiguko ekitaldiarako, 31.800 erakusketetarako, 33.665 liburutegirako, 23.500 gazteentzako ekimenetarako eta pop-rock lehiaketarako, eta 30.000 beste hainbat lehiaketatarako. Auzoetako aretoen ekimenetan, barriz, 38.500 euro inbertituko du. Kultur Leioak dozenaka ikuskizun hartuko ditu, dantza, zinema eta antzerkia barne. Maiatzaren 12tik 15era, barriz, Umore Azoka izango da herriko kaleetan eta aurrekontuaren zati garrantzitsua izango da horretarako.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
boheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta anita lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrikatzea, soropil gaiztak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza spaingarriak inauszea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Patricia Morillas Loroño > Behargintzako Enplegu eta Tokiko Garapen Agentea

“Erandio garaikidearen bizimodua eta eraikinak deskribatzen ditu MP4 bidezko gidak”

Erandio eta bere historia ezagutzeko egitasmoa abiatu barri du Behargintzak, MP4 formatuko audio-gida bidezko bisita gidatuak; Erandio behargina eta industrialera erakutsiko dute Alzaga auzoan zehar prestatu duten ibilbidean. Etorkizunean auzo gehiagora zabaldu gura lukete proiektua.

—Zer ote dira MP4 formatu bidezko bisita gidatuak?

—Erandioko ondarea balioesteko beharretik sortu zen ideia. Herriak ibaia eta industria ditu ikur. Ibaia ezaguna da; Kultur sailak bisita gidatuak antolatu izan ditu txalupan, baina industria arloan, ez da ezer egin orain arte. Ondare hori guztia aintzat hartzea da ideia. Ibilbidearen leloa da *Erandio behargina eta industrialera*, eta aro garaikidea deskribatzen da: 1860tik 1988ra. Ibilbidea 40 minututan egin daiteke.

—Zer ikus daiteke ibilbidean zehar?

—Lehenik eta behin, Erandioren sorrera azaltzen du audio-gidak. Aro garaikideari dagokionez, orduko langileen bizimodua eta eraikinak deskribatzen ditu. Alzagan kokatzen da egitasmoa, baina beste auzo batzuetan ere horrelako zerbitu garatzea gustuko genuke.



Behargintzako teknikariak bisita gidatuaren une batean

—Ibilbideak eta gidak bat egiten dute?

—Bai, ibilbide bat proposatu dugu eta hainbat eraikini buruzko azalpenak ematen ditu gidak. Ordena horretan egin daiteke ibilbidea, baina bestelakorik ere jarrai daiteke, norberak gura duena. Bestelako atalak ere sartu ditugu. Fernando Gonzalok Erandiogoikoako Andra Mari elizan eskainitako organo kontzertua eta elizari buruzko Juan Manuel Gonzalezen hitzaldia ere entzun daitezke. Organoaren ezaugarriak azal-

tzen ditu gidak, berezia baita Andra Marikoa.

—Nora jo behar da erabiltzeko?

—Alzaga Kirodegira hurbildu eta gida eskatu besterik ez dago. Astean zehar 08:00etatik 22:00etara egin daiteke, zapatuan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta jai egunetan, 09:00etatik 14:00etara. Erreserba ere egin daiteke, aste bete lehenago, 94 467 05 11 zenbakian. Euro bat ordaindu eta identifikazioa utzi behar da. ○

Munduko soinuak

Otsailaren 5era arte ikusgai daude Munduko hari musika tresnak Josu Muruetan



Kontinente guztietako tresnak ikus daitezke

Herrialdeak eta kulturak ezagutzeko modu asko dago, bidaiatzea izan liteke onena, bertatik bertara ikusi mundua. Baina bidaiatzea ez dago guztien eskura eta ezin uneoro ibili hara eta hona. Bada, Erandion mundua ikusteko ekimen originala dago egunotan. Munduko hari musika tresnei buruzko erakusketa ikus daiteke otsailaren 5era arte, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean; Luis Perezen bilduma da.

Kontinentez kontinente erakutsi dituzte tresnak, guztira 30etik gora. Mapa batzuetan zehazten da tresna bakoitzaren jatorria eta ezaugarriak, eta ondoren, tresnak ikus daitezke. Dene-

tarik topatuko duzu, tresna handiak, txikiak eta bitxikeria asko.

Antolatzaileek azaldu dutenez, denboraren joanagaz, musika-tresnen formak liraindu egin dira edertasunari bidea emanaz, gero eta material hobekiak erabili dituzte tokian tokiko baliabideen arabera, eta jotzeko moduak ere etengabe hobetu dituzte, zenbait bertuosismora ere iritsiz.

Musika-tresnak bidelagun izan ditugu eta izaten ditugu eguneroko bizitzan: otoitzean, maitasunean, gerretan, jaietan, jaiotzan eta heriotzean; berba batean, bizitzako funtsezko uneetan, eta betiere artisten eskuetan. ○

AGATE DEUNARAKO EZTARRIA PREST

Dagoeneko entsezen ibiliko dira abeslariak, izan ere, Agate Deunaren bezpera iritsi da. Otsailaren 4an, barikuan, Erandion ere hainbat talde arituko da, ohi legez, auzo desberdinetan. Barikua izanik, giro ederra sortuko da herriko kaleetan, ziur asko. Alzaga eskolako Kantaguneko lagunak 18:00etan elkartuko dira Irailaren 23a plazan eta handik betiko ibilbideari ekingo diote. Amaiera 21:00etan inguru izango da. Aldi berean, DBH 4. mailako ikasketa bidaian joango diren neska-mutilak santa-eskean ibiliko dira, betiko moduan. Eureka z gura duten erandioztarrei ere lekua egingo diote. Mendibaiarte Abesbatzakoak ere arituko dira kantuan, 19:30ean hasiko dute kalejira. Astrabuduan ere abestuko dute Agate Deunaren omenez. Trabudu Dantza Taldeak eta Musika Eskolak kalejira egingo dute auzoan zehar; 18:30ean batuko dira Josu Murueta plazan. Makilari eragiten hasi!

INAUTERIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Inauteria eta Erandio ondo islatu behar du Inauterietako kartelak. Udak lehiaketa abiatu du eta lanak aurkez daitezke otsailaren 11ra arte, Udalean edo Astrabuduko Udal bulegoan. Kartela aukeratzeko kontuan izango dute lanaren originaltasuna, Erandiogaz lotura izatea, kalitate artistikoa eta teknikoa, herrian inauteriak sustatzea eta balio *“etikoak eta ez-baztertzailak”* kontuan hartzea. Parte hartzaile bakoitzak gehienez lan bi aurkez daitezke, antzeko lehiaketetan saritu bakoak eta lehiaketa honen aurreko edizioetan aurkeztu bakoak. Kartelak 50 cm x 70 cm-ko neurria izan behar dute. Guztietan agertu behar da *“Carnavales Erandio 2010 Inauteriak”* esaldia. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du. Aurkeztutako lanak erakusketa egingo dute otsailaren 21etik aurrera. Saririk jasoko ez duten kartelak martxoaren 21etik 31ra jaso ahalko dira.

Info+: www.erandio.net

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 906 430 82 42 / 807 882 997 • www.garaizar.com
1800 katea • ALGORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

Maria Torrellas > “La hija de Oshun” dokumentalaren zuzendaria

“Jatorri afrikarreko herritarrek euren kultura eta azalaren kolorea candombearen bidez aldarrikatu dute”

Hilabete egin du Maria Torrellas “Resumen Latinoamericano” aldizkariako kideak Euskal Herrian. Lagun eta familiagaz batzeaz gain, Uruguain filmatutako “La hija de Oshun” dokumentala aurkezten ibili da -tartean, Plaza Beltza kultur elkartearen- Torrellasek candombe jatorri afrikarreko dantza izan du hizpide dokumentalean.

—Zer da zehatz-mehatz candombe?

—Amerikara esklabo eroan zituzten afrikarren adierazpen kulturala da. Afrikako herrialde ezberdinetako esklaboak zirenez, ezin zuten euren artean berbarik egin, hizkuntza ezberdinetan aritzen zirelako. Candombeak komunikazioa erraztu zuen, eta horren bidez libre sentitzen ziren. Hiru atal ditu: danborra, dantza eta kantua, baina erlijioagaz ere lotura handia du. Hego Amerikan, eta batez ere Uruguain, jatorri afrikarreko herritar ugari candombeagaz jarraitzen du.

—Nondik datorkizu interesa gai honetan?

—Montevideon bizi nintzen, eta gure auzoan candombea astean birritan praktikatzen zuten. Hurretik ezagutzen hasi eta dantzak harrapatu ninduen. Maria Farias pelikularen protagonista ezagutu nuenean harrituta gelditu nintzen. Iraganeko ema-



Plaza Beltzan egin zuten zine-foruma

kumea zirudien, magikoa, jainkosa baten modukoa. Eta bere bizitza ezagutu nuenean kontatu behar nuela iruditu zitzaidan. Izan ere, Maria goi-mailako familia batean esklabo izan zen, tratu-txarrak pairatu zituen... Baina candombearen bidez erresistitzea, borrokatzea eta askatzea lortu zuen.

—Zer lortu gura zenuen pelikulagaz?

—Lehen helburua Mariaren istorioa ezagutzera ematea zen, itzalpean dagoen errealitatea delako. Uruguaiako gizarteak ez du

gutxiengo horren berririk, botereak euren egoera isilarazi duelako. Hurrengo xedea, nola ez, bazterkeria egoera hau salatzea zen, egun bestelako esklabotza motak daudelako: arrazismoa, ikasteko trabak...

«Kultura, herrien arteko maitasuna da, beste herriak ulertzen laguntzen digu»

Emakumeen kasuan, gainera, are larriagoa da. Maria Farias eta sufritu duten “Maria” guztiak ere omendu gura izan ditut, euren kultura eta azalaren kolorea duintasun eta harrotasunez aldarrikatzen jarraitu dutelako, candombearen bidez.

—Uruguain jatorri afrikarreko herritarrek bazterkeria egoeran bizi direla ikusi duzu, Euskal Herrian ere antzeko egoera bizi dutela uste duzu?

—Bai, hemen ere arrazismoa dago. Ez dut uste pertsona afrikarrak guztiz integratuak daudenik. Ahalegindu behar dugu Euskal Herriko kulturen barnera daitezen, gure hizkuntza uler dezaten. Baina, noski, berdintasunean egindako hartu-emanak izan behar du. Kultura jakin bat ezin da beste baten gainetik egon. Nire ustez, kultura herrien arteko maitasuna da. Kulturak batzen gaitu, beste herriak hobeto ulertzen laguntzen digu. ○

Sormenezko hordagoak

Olerki, ipuin-labur, pintura eta maitasun gutunen lehiaketak antolatu dituzte otsailean zehar



Martxoaren 9an amaituko da pintura lehiaketan parte hartzeko epea

Norberaren trebetasun artistikoa erakusteko ordua heldu da Sopelara. Idaztea gustuko duenak olerki, ipuin-labur eta maitasun gutun lehiaketetan parte hartzeko aukera izango du. Pintzel eta akuerekin artean gusturago sentitzen denak, ostera, pintura txapelketa ere izango du.

Zazpi urte bete dira Udalak “Maite Maitea” maitasun gutun lehiaketa abian jarri zuenetik. Gaia libre da, betiere maitasunagaz edo maitasun faltagaz lotuta badago. Kategoriatan banatzen dute: gazteen kategoria (18 urtera arte) eta helduen kategoria. Gutunak gehienez orrialde bi izan beharko ditu, euskaraz edo gazteleraz idatz daiteke eta aurretik iragarri edo saritu bakoa izan beharko du. Epea otsailaren 4an amaituko da, eta lanak Kurtzio Kultur Etxean aurkeztu behar dira. Sarietarako dagokienez, gazteek mp4 erreproduktore bat irabazteko aukera izango dute, eta helduek, barriz, bi laguntzako bazkari edo afa-

ria eta SPA zirkuitua Areatzako bainu-etxean.

Olerki eta ipuin-labur sariketarako, bere aldetik, Itzartu elkarteak antolatzen ditu, eta Sopelako, Uribe Kostako eta Bilboko emakumei zuzenduta dago. Olerkien luzera gutxienez lau bertsoak izango da, eta gehienez 50ekoa. Ipuin laburren kasuan, gutxienez hiru orrialde izan beharko dituzte, eta asko jota, hamar.

Ipuin-labur eta olerki lehiaketan epea otsailaren 25ean amaituko da

Lanak euskaraz eta gazteleraz aurkeztu ahal izango dira, eta parte hartzeko ezinbestekoa da 18 urtetik gorako emakumea izatea. Epea, otsailaren 25ean amaituko da.

Pintura lehiaketan parte hartu gura duenak, tarte luzeagoa izango du lanak egiteko. Epea martxoaren 9a arte luzatuko da, eta 18 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal izango dute. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarmia 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

LAIAK
Taberna

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

METRO GELTOKI BARRIKO PROIEKTUA, ONARTUTA

Asmo handiko proiektua onartu barri du Berangoko Udalbatzak, EAJ, PSE eta EAren aldeko botoakaz. Egitasmoak herriko metro geltokia eta bidea estaltzeko helburua du, eta Udalak inoiz izan duen aurrekonturik handiena izango du: 20 milioi euro. Udalak ez du zehaztu geltoki barria zein urtetan egongo den amaituta, baina IMB taldeari proiektuaren erredakzioa esleitu dio, milioi bat euroren truke. Metroko bidea estaltzeaz gain, eraikin barriak beste hainbat zerbitzu eskainiko ditu. Goialdean, Kurtze aldean, 100 autorentzako parkina eta plaza egingo dute. Eraikinaren barruan, kirol ekipamenduak izango ditu: lur azpiko igerilekua, padel pistak eta gimnasioa. Erabilera kulturalerako aretoak ere gordeko dira. Udal iturrien arabera, eraikin barriak Kurtze eta Sabino Arana auzoen arteko lotura hobetuko du, eta igogailu panoramikoak izango du. PP, EB eta Ezker Abertzalea proiektuaren aurka agertu dira.

ESKOLAN HOBEKUNTZAK EGINGO DITUZTE

Berangoko Udalak hobekuntzak egingo ditu Berango-Merana ikastetxean, bertako Guraso Elkarteak hala eskatu ostean. 2011. urteko aurrekontuetan jaso dituzte obrak, eta Guraso Elkarteak Udalak egindako "esfortzu ekonomikoa" eskertu du. Hala ere, "bazela garaia" aldarrikatu dute: "Gurasoen, ikastetxearen zuzendaritzaren eta Eskola Kontseiluaren lanari esker lortu dugu".



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarera, Jata Mendia) T. 490 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Santa Ana, gune kulturala

Asteburuetan zinema eta antzerki emanaldiak eskainiko ditu **Berango Antzokia barriak**



Berango Antzokiak 2,32 milioi euroko aurrekontua izan du

Ateak zabaldu ditu Berangoko eskaintza kulturala biderkatuko duen erabilera anitzeko eraikinak. Santa Ana auzoko eraikin barria abenduaren akabuan aurkeztu zuten, eta udal iturriek aipatu dutenez, kultur egitaraua nabarmen areagotzeko aukera emango du.

Izan ere, eraikinaren osagai nagusia 212 eserleku dituen auditoriuma da. Areto honek lehen eskaini ezin ziren formatu ertain eta txikiko ikuskizunak programatzea ahalbidetuko du, Berangoetako kultur etxeko aforoa bikoizten baitu. Aretoa zabaldu eta

berehala hasi dira ekitaldi kulturalak antolatzen bertan. Zinema zaletuek astebururo pelikula bat ikusteko aukera izango dute. Haurrentzat, "Pepper" eta "Hiru mosketariak" emango dute, otsailaren 6an eta 13an; eta helduek, "Noche Loca" otsailaren 12an. Era berean, antzerki emanaldientzako tartea ere egongo da. Otsailaren 5ean, "La venganza de Petra" antzetzuko du ACADA talde berangoztarrak.

Herriko kultur taldeentzako 12 lokal ere hartuko ditu Berango Antzokia barriak. o

Amaia, Koldo, Ane eta Amagoia > PGGA

"Gaztetxea bi herriotako gazteon topagune izatea gura dugu"



Andra Mari kaleko 1. zenbakian dago Ermitatze Gaztetxea, Plentzian

Olentzerok opari ederra ekarri die Plentzia eta Gorlizko gazteei. Abenduaren 18an lehenengo saiakera egin ostean, gazte asanbladak Ermitatze Gaztetxea okupatu zuen urtarilaren 4an. Hiru solairuko eraikinari bizia ematen hasi zaizkio jada gazteak. —Nolako harrera izan du Gaztetxeak herrian?

—Bageneukan gogoia herri bietan horrelako gune bat sortzeko. Azken hilabeteetan "Olentzero, gabonetarako gaztetxea!" kanpaina egin dugu eta erantzun oso ona izan du. Apurka-apurka, eta Gaztetxea egonkortzen doan heinean, gero eta gazte gehiago hurbiltzen joango dela uste dugu. Gaztetxea Plentzia eta Gorlizko gazterien topagune izatea gura dugu.

—Oztupoak izan dituzue Gaztetxea sortu zenutenetik?

—Okupazio egunean udaltzainek hiru

kide identifikatu zituzten, eta lau egun beranduago, Ertzaintzak beste zazpi, eraikinaren jabeek salaketa jarri dutelako. Eurekaz akordioa lortzen saiatu gara, baina momentuz ez dugu lortu, gure arteko harremanak txarrak ez diren arren. Udalari ere bilera egiteko eskatu diogu, baina ez digu erantzun.

«Otsailerako auzolanak eta tailerrak antolatuko ditugu»

—Zein ekimen egingo duzue otsailen?

—Lehenengo eta bat, Gaztetxeko lehen solairua atontzen buru-belarri ibiliko gara. Horretarako, auzo-lanak antolatuko ditugu. Bestalde, hitzaldi eta tailerrak prestatzen hasi gara: autodefentsa, saltsa... Plentzia, Gorliz eta eskualde osoko gazteria gonbidatu gura dugu Gaztetxera. o

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKEI!

Cerca de la salida del metro (a 190 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Sarriena.

OSABIDE HORTZ & LINIA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Edičari 27, beheko etxebizitza
ALGORITA
94 430 76 96



Torre 2
48990 ALGORITA
94 491 12 71
iratia@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA



AIXERROTA BHI

TEKNOLOGIKOA
BAXILERGOAK - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEN GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 84

AUZOZ AUZO SISTEMAK URTEBETE EGIN DU

Urtebetean 100.000 kilo hondakin baino gehiago batu dituzte Barrikan "Auzoz Auzo" sistemagaz. Udalak balorazio oso positiboa egin du, euren arabera konpostatzerako zerbitzu aitzindari honek herriko hondakinen kudeaketa jasangarriagoa egin duelako. Jasotako hondakin guztien artean, konpostagarriak diren 58.000 kilo baino gehiago batzea lortu dute. Jasotako beste 3.000 kilo organikoa ez den zaborra izan da.

BEHATOKIAREN KEXAK PLENTZIA ETA GORLIZEN

Plentziako Ezker Abertzaleak jakinarazi duenez, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak kexa bi igorri zizkien Plentzia eta Gorlizko udalei 2009. urtean. Plentziaren kasuan, Behatokiak kexa bidali zuen herritarrek eta elkarteek udal informazioa gaztelania hutsean jaso zutelako eta gutxienez udalbatza bat gaztelera hutsean egin zelako. Gorlizen, barriz, oharrak, ekitaldiak eta jakinarazpenak gaztelera egiteagatik agertu da kexu Hizkuntza Eskubideen Behatokia.

HAURREN ESKUBIDEEN ALDEKO ERAKUSKETA

Otsailaren 2tik 28ra hurren eskubideen aldeko erakusketa izango da Plentziako Goñi Portalen, Intervida gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta. Erakusketak argazkiakaz lagundutako hainbat informazio panel ditu, eta bertan adinbakoen oinarriko eskubideen errepaso egiten da.

URDULIZ

Haurreskola eta gero, lorategi botanikoa



Aire libreko gimnasioa ere izango du parke barriak

Arteta kalearen ingurua Urdulizko hirigune barria bihurtzen ari da apurka-apurka. Otsailaren 1ean haurreskola zabalduko dute Kultur Etxearen alboan, eta hainbat zerbitzu gehituko zaizkie hurrengo hilabete eta urteetan, osasun zentroa tartean. Haurreskola eta Kultur Etxea lotzeko, gainera, 4.000 metroko lorategi botanikoa egingo duela iragarri du Udalak. Egun sastrakaz beterik dagoen lurzoruan 40 espezie ezberdinetako zuhaitzak landatuko dituzte. Ibilbide eko-

logiko bat diseinatuko da, eta zuhaitz bakoitzari identifikazio plakak jarriko zaizkie. Haurrentzako jolasgunea ere izango du parkeak, zabu eta txirristakaz.

Era berean, Kultur Etxe ondoan ere aire libreko gimnasioa eraikiko du Udalak. Gimnasia egiteko tresnei esker, nagusiek beso, aldaka edo hankak landu ahal izango dituzte. Lotaregi botanikoa-gaz eta gimnasioagaz batera, estetika abangoardistadun hiri-altzariak jarriko dituzte. ○

Urt. 31 - Ots. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Munduko hari musika tresnak.** Josu Murueta Kultur Etxean. Otsailaren 5era arte. Doan.

GETXO

► **Arte Ederretako irakasleen lanak.** Algortako erakustaretoan. Otsailaren 5era arte.

SOPELANA

► **Naturarekin zuzenean pintura erakusketa.** Kurtzio Kultur Etxean. Otsailaren 10era arte.

PLENTZIA

► **Intervida.** Goñi Portalen. Otsailaren 2tik 28ra.

LEIOA

► **Bits of Jazz.** Kultur Leioan. Otsailaren 3tik 27ra. Doan.

MUSIKA

GETXO

► **Mobby Dick.** Getxo zuzenean ekimena. Algortako Satistegi kafetegian. Otsailaren 3an, eguenean, 20:00etan. Doan.

► **Last night.** Getxo zuzenean ekimena. Romoko West Side Bar tabernan. Otsailaren 10ean, eguenean, 20:00etan. Doan.

► **Ondarreta korala.** Romoko elizan. Otsailaren 11n, 20:15ean.

► **The Borthrood.** Getxo zuzenean ekimena. Areetako Glass kafetegian. Otsailaren 17an, 20:00etan.

LEIOA

► **Izarren distira.** Kultur Leioan. Otsailaren 5ean, 19:00etan. Gonbidapenagaz.

► **Luhea Salom.** Kultur Leioan. Otsailaren 11n, 21:00etan. 10 euro.

Getxoko Txorimalo gaztetxea

► **Jaialdia**
Koska irratiak 10 urte, eskerrik Koska!

Uribe Kostako irrati libreko koskortzen hasi ez da ba! Dagoeneko hamar udabarri bete ditu eta merezimendu osoz ospatuko du otsailaren 5ean, zapatuan. Getxoko Txorimalo gaztetxean izango da jaialdia oraingoan. Arrastian izango da ekimenik, 17:30etik aurrera, baina 20:00etan hasiko da parranda. Hiru musika taldek joko dute: DAR, Cuatro Tragos eta eskualdeko beste talde bat. Koskak beraz urteurren ekitaldia egingo du tartean, eta kontzertuen ondoren musika eta jaia ziurtatu dituzte. Gainera, Txorimalok bingoa ere antolatu du eta saritzat bost garagardo katxi emango dituzte. Sarrera 4 euro kobratuko dute. Zorionak eta *Eskerrik Koska!*

• **Non:** Getxoko Txorimalo gaztetxean • **Noiz:** Otsailak 5, zapatua

GORLIZ

► **Josu Doncel.** Light House tabernan. Otsailaren 5ean, zapatuan, 21:00etan.

ERANDIO

► **Bilbao Orkestra Sinfonikoa.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Otsailaren 5ean, 19:30ean. 2 euro.

► **Dantzaldia orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Otsailaren 13an, domekan, 17:30ean.

ZINEMA

GETXO

► **Mistykal.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 6an, domekan, 17:00etan. 2,10 euro.

BERANGO

► **Pepper.** Berango Antzokia. Otsailaren 6an, 17:30ean. Doan.

► **3 mosketariak.** Berango Antzokia. Otsailaren 13an, 17:30ean. Doan.

ERANDIO

► **Balada triste de trompeta.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Otsailaren 12an, zapatuan, 19:30ean. 2 euro.

ANTZERKIA

BERANGO

► **La venganza de la Petra.** Berango Antzokia. Otsailaren 5ean, zapatuan, 19:30ean. Doan.

GETXO

► **Kontalarien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Otsailaren 11n, barikuan, 19:00etan. Doan.

SOPELANA

► **Tres saintes.** Kurtzio Kultur Etxean. Otsailaren 12an, zapatuan, 19:30ean. 5 euro.

LEIOA

► **Kolore Bitxia.** Kultur Leioan. Otsailaren 13an, domekan, 12:30ean eta 18:00etan. 5 euro.

BESTEAK

LEIOA

► **Agate Deuna lehiaketa.** Herri erdiguneko kaleetan zehar. Gutxienez 10 lagunek osatutako taldeak.

GORLIZ

► **Formigalera txangoa.** Otsailaren 4tik 6ra. Izena eman behar da Turismo bulegoan.

PLENTZIA

► **Joskintza tailerren izen-ematea.** Goñi Portal Kultur Etxean. Otsailaren 14ra arte.

► **Internet oinarriko ikastaroen izen-ematea.** Goñi Portalen. Otsailaren 14tik 18ra.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA




Artearen mugak

Kale-arte edo kale-kaltea? Grafitiak aspaldi bihurtu ziren gure herriko hormen margolan inprobisatuak. Baina artelan guztiak legez, batzuetan zenbait grafitik eztabaida sortzen dute: leku "desegokietan" daudelako, oso "landuak" ez direlako... Sinadura bat betikotzeko margozketa berekoiak baino ez dira? Sormenari mugak jarri behar zaizkio? Grafiti guztiak artelanak dira? Nork erabakitzen du hori? Erantzuna, hormetan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





'Alfonso XIII'

transatlantiko, erasotua

1920. urteko irailaren 14an uretaratu zuten 'Alfonso XIII' transatlantiko Sestaoko La Navalen. Itsasontziak, baina, ez zuen bidaia luzeak egiteko aukerarik izan 1923. urtera arte. Izan ere, uretaratu eta hil bira, su hartu zuen Sestaoko ontzitegian, eta ontzia guztiz kiskalita lotu zen. Sutea nahita sortua izan zela uste zuten La Navaleko arduradunek, garai hartan, langileak protestan ari zirelako. Gainera, sutearen egunean, ontziaren beharginek ohi baino lehenago urten zuten beharretik. Susmo horiek aitzakia hartuta, Guardia Zibilak La Navaleko 260 langile atxilotu zituen, baina ezin izan zuten egilerik harrapatu, edo konfesatzera behartu. Urte bi behar izan zituzten ontzia konpontzeko.

PLASENTIA-BUTRON MUSEOA

[berbetan]

Urrunera jo ohi dugu arazo handien konponbide bila; baina, batzuetan, uste baino hurrago daukagu. Komunikabideetan pil-pilean dabilen krisiari aurre egiteko, auzoko plazan aurkitzen ditugun lagunak, elkarlana, antolakuntza eta amesteko gogoia besterik ez ditugu behar Nekane Juradoren (LLeida, 1958) ustez. Eusko Jaurlaritzako Planifikazio Ekonomiko arduraduna izan da 25 urtez; gaur egun, ekonomista eta psikologo dihardu eta Euskal Herriko herri mugimenduagaz kolaboratzen du. Eleberri bat eta 15 argitalpenetik gora baditu ere, 2010ean kaleratu zuen *“Independencia: de reivindicacion historica a necesidad economica”* lanak (Txalaparta, 2010) eroan gaitu berbalditxo honetara.

Nekane Jurado

Auzolanean krisiari aurre eginez

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Argazki Press**

—Emakumea ekonomiaz berbetan. Ez gaude ohituta komunikabideetan hori ikusten.

—Emakume asko gaude ekonomian beharrean. Unibertsitatean adibidez, goi mailako irakasleak eta ikerlariak daude. Hala ere, oraindino gizonagaz lotzen da dena, ikerketarako diru-laguntzak eta formakuntza propioa izateko aukerak. “Kristalezko sabaia” delakoagaz lotuta dago hori. Gizonak emakumeak ez dituen aukera gehigarriak ditu. Emakume askok amatasuna, etxeko beharra edo senarraren zaintza planteatzen duenean, lan karga gehigarria jartzen du gainean. Karga gehigarri horrek, gizonezkoek duten bidaiatzeko edo ikertzeko erraztasuna izatea oztopatzen digu. Baina, eguneroko beharrean emakume asko gaude Euskal Herrian eta, askok, gizonezkoak baino konpromiso handigoa du; nahiz eta gizonak hartu komunikabideetako tituluak.

—Genero berdintasunaren alde pausok ematen ari direla entzuten da. Ekonomiaren alorrean ikusten dituzu

pauso horiek?

—Maila juridikoan pausok ikusten ari gara, baina errealitatean lehengora bueltatzen gara: praktika da arazoa, egunerokoa. Hor daukagu barrero “kristalezko sabaia”. Emakumeak eremu pribatua guri dagokigula onartzen jarraitzen dugu; eginbehar bezala ikusten dugu. Bitxia da ikustea, goi mailako ikasketak ditugun emakumeontzat, gurasoak zahar-etxera eroan behar izateak, barne eztabaida handia sortzen duela. Gure

“Lan munduan nabarmendu gura izateagatik berekoi sentitzen gara emakumeak; presio itzela dugu”

gurasoen belaunaldia, zahar-etxeetara joaten ari den lehenengoa da; horregatik, erruduntasun sentimendua bizitzen ari gara eta horrek eragin handia du beharrean. Lan munduan nabarmendu gura izateagatik, berekoiak garela uste dugu. Ikuspuntu psikologikotik, gizonezkoek jasan behar ez dituzten presioak jasaten ditugu. Hortik abiatuta, ezin da ber-

dintasunik existitu. Nahiz eta eskubide berdintasuna izan, berdintasuna bere horretan ez da erreal, hezkuntzagarri eta sozializatzeko moduengatik.

—Zure azken liburuari helduko diogu: *“Independencia: de reivindicacion historica a necesidad economica”*. Ezpala aldizkarian 1996an argitaratutako artikulua du abiapuntu. Ez dira gauzak aldatu azken 14 urteotan?

—Liburuak atal ezberdinak ditu. Alde batetik, Globalizazioaren ideologia iza-

ten ari den eragina lantzen dut. Jendeak ez du “ideologia” berba gustuko; baina ideologia, balore eta ideien multzoa da. Edozein jendarte, balore eta ideia multzo batean murgilduta dago. Hori da ideologia, gustatu ala ez. Herri bezala ezkerreko baloreak genituela uste genuenok, erabat kontsumista garela ikusten ari gara; etorkinak esplotatzen eta etxebizitzagaz



espekulatzan gaude, nahiz eta ezkertiar-tzat izan gure burua. Zer gertatu da gure baloreak? Barrura begiratzea da eta, hori, berria litzateke.

Hurrengo atalean klase borroka eta Ongizate Gizartearen suntsipena lantzen dut. Lan bieci egiten diet erreferentzia. Alde batetik 1996an *“Objetivo, destruir el Estado de Bienestar”* artikulua argitaratu nuen Ezpala aldizkarian. Garai horretan, prozesuaren lehenengo fasea martxan zegoen, Maastricht-en hasi zena; horrek bankuen pribatizazioa ekarri zuen. Han hasi zen Toledoko ituna eta markatutako ildoak. Garai hartakoa eta gaur egungoa ikusten duenak, kristal bola dugula pentsatuko du, etorkizuna iragarri genuela. Baina ez da hori; ekonomia interpretatzea, mapa irakurtzea bezain erraza da. Madrilerako bidean N-1 errepidean bagoaz eta ez badugu norabidea aldatzen, argi dago Madrilerak helduko garela. Abiaduraren arabera, lehenago edo beranduago.

—Mundu Globletik Euskal Herrira...

—Lantzen dudana beste elementua, liburuari izena ematen diona, 1997an idatzitako artikulua batean dago oinarrituta: *“Independencia: de reivindicacion historica a necesidad economica”*. Orea bako garai horietan, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, aipatutako ildoak jarraituz, dana hankaz gora jarri eta jendarte prekarioa sustatu zuen. Lan arloan Aldi Baterako Laneko Enpresak sortzen hasi ziren; etxebizitzagaz espekulatzan hasi zen. Hor ikusi zen ez genuela Politika Ekonomikoa letra larriz egiteko tresnarik, beste eredu bat eraikitze elementurik. Politika ekonomikorako erabiltzen diren elementuak oso lotuta agertzen dira Konstituzio espainolean, Estatuaren eskumen bezala ulertuta. Euskal Herrian, kudeaketa etikoagoa egiteko aukera besterik ez dugu; baina markoak Estatu Espainolak eta Frantsesak zehazten dutena izan behar du. Independentzia beharrezkoa dugu, ekonomia eredu ezberdina diseinatzeko aukera izan gura badugu.

—Gutxitan landu da ikuspuntu hori Independentzia aldarrikatze. Jendea ez zaio zaila egiten hori ulertzea?

—Bakarrik esan dezaket momentu honetan liburuaren laugarren edizioa inprentan dagoela eta bigarren edizioa agortu egin zela Durangoko Azokan. Interesa pizten ari da. Orokorrean, hurbildu zaidan jendeak esan dit ez dituela lehenengo

“Herri bezala ezkerreko baloreak genituela uste genuenok, erabat kontsumista garela ikusten ari gara”

kapitulu biak ulertu, Globalizazioaren eta Kontsumismoaren baloreen inguruan direnak; ez daude ohituta horren inguruan hausnartzen. Badago beste jende multzo bat barriz, ezagutza maila altuagoa duena, lehenengo biak gustuko izan dituenak; baloreen inguruan hausnartzen bultzatu dituelako, hain zuzen ere. Agian, ez ulertzearena, terminologiagatik izango da; gai abstraktua da, psikologiagaz oso lotuta dagoena. Garrantzitsua da ikustea ideologia guztiaren gaineratik dagoela eta Sistemaren garapena besterik ez garela.

—Uler dezagun, tesi nagusia...

—Baloreak zelan sortzen diren azaltzen dut; ez gara horiekaz jaiotzen, sartzen dizkigute, legeria erabiliz. Sistemaren puntu gorenean dago hori. Gaur egun, merkatuaren balore gorenaz egiten digute berba;

“Baliabide bako herriak ez du interesik sortzen; interesgarriak gara, ahalmen ekonomikoa handia dugulako”

ikusten da zein den, lan merkatua eta pentsioak suntsitzea. Legeri eta erreprezio sistema oso bat diseinatzen dute, aurrera eroan gura dutena lortu ahal izateko. Erabat barneratu ditugun baloreen gainera hausnartzea planteatzen dut. Sindikatuek adibidez, lehiakortasunaz eta produktibitateaz jarduten dira: “Euskal

Herriko enpresek lehiakor izan behar dute krisitik urteteko”. Baina, badakigu zer den lehiakortasuna? Produktua merkatuko prezio merkeenean ekoiztea da lehiakortasuna. Hitzaldietan nagoenean, eskuan dudana botilaren adibidea jartzen dut. Zelan lor dezakegu botila hori ahalik eta merkeen? Plastikoa lortzeko, petroleoa duten herriak indarrez hartu eta lapurtzen

diegu. Ura lortzeko, herriarenak diren urputzuak pribatizatzen ditugu. Botilartzeko, langileak esklabo ditugu, inolako eskubide barik. Horrela, produktua merkeago lortuko dugu. Hori da bilatzen duguna? Hau da, sindikatuak lehiakorrak izateaz berba egiten jarrai dezakete, horrek suposatzen duena jakin barik? Ondo aztertu behar ditugu merkatuek saldu gura dizkigun terminoen azpian dauden baloreak; konturatu behar dugu, ezin dugula horiekaz bat egiten jarraitu.

—Kalean asko entzuten den esaldia da, Euskal Herriari independentzia ez emateko arrazoi nagusia ekonomikoa dela. Hori ere landu duzu liburuan?

—Bai. Baloreak, klase borroka eta emakumearen papera azaltzen dut hasteko. Ondoren, Euskal Herriko gaur egungo

nergia positiboak ditugu. Giza kapitalari dagokionez, Europar Batasuneko jendarte trebatuenetakoa dugu. Emakumeen artean ere, formakuntza zientifiko eta tekniko altua dago. Baina, datu horiek ez datoz bat gazteei ematen ari zaizkien aukerakaz; langabezia tasa Europar Batasuneko median oso gaineratik dugu. Lanpostuak eta ikasketa maila ere, ez datoz bat.

“Gure beharretatik, zeintzuk ase ahal ditugu komunitatean eta merkatuaren beharrik barik?”

Bestade, baliabide ekonomikoa eta finantza baliabide garrantzitsuak ditugu. Zati handia, Madrilerak joaten da Kupoa dela eta. Madrilen garrantzitsuak bagara eta aske izaten uzten ez badigute, kentzen dizkiguten baliabideengatik da. Baliabide bako herriak ez du interes handirik sortzen; interesgarriak gara, ahalmen ekonomikoa handia dugulako.

—Urtarrilaren 27an Greba Eguna izan zen Hego Euskal Herrian, euskal sindikatuak deituta. Zelan ikusten duzu herriaren erantzuna?

—Egia esan, beste erantzun bat eman

gura nuke, baina ikusten dudana esaten dut beti. Erantzuna epela izaten ari da. Hori liburuan esaten dudana lotuta dago. Dena ondo lotuta dagoela saldu digute; mundu Globala merkatu handiek saldu dutela eta guk ezin dugula ezer egin. Agintariek egin dezaketen onena dela eta guk onartu behar dugula.

Bestalde, beldurra daukagu, sortu

duten prekaritate globala dela eta. Ez daukagun hori galtzearen beldur gara. Europar Batasuneko zorpetze maila altu-enetakoa dugu. Nafarroan adibidez, familien zorpetzea BPGaren %146ren gaineratik dago. EAEn altuagoa izango da, etxebizitza garestiagoa delako. Horren aurrean, beldur gara. Zaila da jendea egun batzuk betetzeko egutegi jarraia eta globala sortzea. Agian, hilabete batzuk barru, jendarte mugitzen hasiko da. Baina gaur egun hori da ikusten duguna: beldurra. Eta beldurrak geldiarazten gaitu.

—Badago egoerari aurre egiteko urtenbide magikorik?

—Formulak badaudela uste dut, ez dira magikoak, errealak baizik. Euskal Herriko zenbait auzotan beharrenean hasi dira dagoeneko; Egia auzoan Donostian, baita Bilbon eta Gasteizen ere. Bizitza duina izateko gure beharrik zeintzuk diren planteatu behar dugu. Ez dira bakarrik behar ekonomikoa izango, baita psikiko-afektiboak ere. Horietatik guzti-etatik, zeintzuk ase ditzakegu komunitatean, taldean, eta merkatuaren beharrik barik? Elikaduratik hasita eta arropara helduz, ase daitezkeela ikusten ari da. Eskemaren bizkarrezurra “Denboraren Bankua” da, trukeagaz zerikusirik ez duena. Dinamika garatuagoa da; taldeak dituen ahalmenaz baliatzen gara denok eta elkartruke kolektiboa gertatzen da. Potentzialtasun ikaragarria duen zerbait lortzen ari da. Dena ez dela merkatutik pasa behar erakutsi behar dugu; merkatuek lehen hartzen ez zituen gero eta esparru gehiago hartzen ari dela: aisialdia, harremanak e.a. Auzoetan eta auzolanean hori berrartzen lortzen dugun heinean, bakarrik ez gaudela eta asko egin dezakegula ikusiko dugu. ○

Krisiaren kontrako auzolana... ematen eta jasotzen ikasi

—Beraz, uste baino hurbilago dago erantzuna.

—Hori da, oso hurbil dago. Eta gure auzoan dagoen behar askori aurre egiten hasi gaituzke; gainera, elkarrekin aurre eginez guztiak aberastuko gara. Ematen eta jasotzen jakin behar dugu; zailagoa da jasotzea ematea baino. Sare soziala sortu behar dugu. Eta badaude horretara ausartzen ari diren auzoak.

—Auzo horietan egiten ari denaren adibideren bat...

—Antolakuntzaren bizkarrezurra “Denboraren bankua” da. Auzokide guztiei, berdina du adina, zer behar duten eta zer eskain

dezaketen galdetu zaie. Badago jendea hurbildu dena esanez: “Nik medikuarenera laguntzen nauen norbait behar dut, ez ditudalako medikuaren aginduek ulertzen. Eta eman dezakedana... sukaldatzen dakit eta etxetik atera ezin arren, janaria presta dezaket jendeak domekan eroan dezan”. Gazteentzako logelak eskaini dituen jende nagusia ere badago; ez medikuarenera laguntzearen truke, gazte horrek beste zerbait erosten duela komunitatera. Eskola partikularrak, perretxikoak bilatzeko ibilbideak... denetarik eskaini dute. Edonork eskaini eta jaso dezake. Emakume nagusiak logela

alokatzeagatik duen bonoagaz, auzoko uleapaindegian moztzen du ulea. Dendetan irautzear dauden produktuak eskaintzen dituzte, bonoen truke. Zaintza kolektiboak ere planteatzen ari dira. Lan merkatu barruan zein kanpoan dagoen jendea parte hartzen ari da; ikusi dute, hori ez dela lau katuren kontua. Aipatutako guztia egiten ari da, benetako da; horren indarra amesteko duten gogoak bakarrik mugatuko du. Ni prest nago krisiaren kontrako auzolan hori zelakoa den ikusi gura duen Bizkaiko edozein auzo edo herri laguntzeko, erantzun sendoa sortzeko.



Ikusezinak

Identitateari buruz hausnartu du Hodei Torres bilbotarrak. EZLNko Markos sub-komandantearen esaldi batean oinarritu da: *“Buru-berokia ipintzen dugunean bihurtzen gara ikuskorrak”*. Argazkiotan pertsonak ikuskor bihurtzen diraburu-berokia ipintzean; bestela ikusezinak liratezke. Bestalde, Euskal Herrira ekarrita, armen erabilerari buruz esatera dator buru-berokia edonork ipini lezakeela. Beraz, bi gogoeta egin ditu: *“Ikusezinak dira egunerokoan gure arreta ematen ez dutenak, baita ere ez dakigunak hala direna”*. Torresek Arte Ederrak ikasi zituen eta UK-ko argazkilari ere aritu izan da.

Argazkiak: **Hodei Torres**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

- Ingelera 4 urteik. Frantsesa DBHn.

- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

- Leioako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartearen

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRK?



GIZONENTZAKO
MODA

Tel. 94 491 13 37
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Cristian eta Leire > *Norabide guztiak* dokumentalaren egileak
"Ikastetxea jendartearen mikrokosmosa da, han gertatzen denaren erakusleihoa"



Cristian eta Leire

Getxoko Wanted ideia lehiaketa irabazi zuten Cristian Villavicencio (C) eta Leire Muñoz (L) getxoitarrek 2009an, Fadura ikasleen bizimodua kontatzen zuten filmaren egitasmoari esker. Urta-rrilaren 14an estreinatu zuten.

—Zelan hartu du ikusleak dokumentala?
—(L) Nahiko jende hurreratu zen. Oso gustura geratu ginen bai lekuagaz, bai ikusleen erantzunagaz, oso pozik gaude.

—Zer kontatu duzue?
—(C) Getxoko Fadura institutuko bizitza kontatu dugu, baina modu berezian, egoeren arabera. Hau da, topatzen genituen ekimenak uztartu ditugu, institutua-

ren bizimoduaren barri emateko ikuspegi desberdinetatik: matematika klase bat jasotzen duen ikasle batena, irakaslearena, ikasle batzuen taldearen kontzertua ikastetxetik kanpo, urtebetetzeak, e.a. Finean, ohiko bizimodua behatu dugu.

—Zergatik gai eta ikastetxe hori?
—(L) Aurreko batzuetan ere batera lan egin dugu beste zenbait egitasmotan eta

«Beti interesatu zaigu gazteria eta euren arteko harremanak»

beti interesatu zaigu gazterien gaia, baita elkarregaz nolako harremanak dituzten ere. Oraingoan gaia sakontzea erabaki genuen, eta horretarako, institutu batean izan behar zuela pentsatu genuen; Fadura aurrerago eskaini ziguten, baina ikastetxe horregaz ez geneukan harremanik lehendik. Ikastetxeko jendartean nola moldatzen diren erakutsi gura genuen. Izan ere, jendartean gertatzen denaren erakusleio da institutu bat, jendartearen mikrokosmosa. Oinarrian aktore berberak daude batean eta bestean,

«Neska baten 15 urtebetetze jaia grabatu genuen behin»

antzeko ikuspegiak bata bestearen desberdina, baina elkarregaz bizi eta harremana izan behar dute. Institutua kontenedore erraldoi batean legez, adin eta jatorri desberdineko pertsonak batzen dira.

—Nolatan aurkeztu zineten *Wanted* lehiaketara?

—(C)Elkarregaz ikasi dugu Arte Ederrak. Behin Areetan gertatutako egoerei buruzko bideoa egin genuen, horietako bat izan zen Boliviako neska baten 15 urtebetetze jaia. Ideia sortu, eta lehiaketa atera zenean, dosierra osatu eta aurkeztu genuen. Irabazi eta aurrera egin zuen egitasmoak. ○

Metal ala pop-rock

Leioako XI. Pop-rock Lehiaketarako maketak aurkez daitezke martxoaren 20ra arte



All Reasons taldeak eskuratu zuen iaz ikusleen saria

Hilabete gutxi igaro da Leioako azken Pop-rock Lehiaketaren finaletik, baina dagoeneko abiatu dute 2011koa. Parte hartzeko, martxoaren 20ra arte bidal daitezke bost abestik osatutako maketak Aterpe Gaztegunera (Aldapabarrena 2).

Ohiko legez, metal eta pop-rock mailak banatu dituzte, hainbat estilo batzen du horietako bakoitzak. Zein mailatan parte hartuko duten zehaztu behar da maketa bidaltzeagaz batera.

Epaileek aukeratuko dituzte maila bakoitzeko hiru talde, euren ustez onenak. Zuzenean finalerako sailkatuko dira;

sanjuanetan jokatu da, jaien barruan. Talde bakoitzak 40 minutuz joko du epai-leen eta ikusentzuleen aurrean.

Maila bakoitzeko irabazleak 1.800 euro jasoko ditu sari gisa, eta gainera, diskoa grabatuko dute bakoitzaren bina abestigaz. Baina bestelako saririk ere banatuko dute: Leioako talderik onenak eta euskarazko abestirik onenak 600 euro jasoko dute, eta ikusleen sariaren irabazleek herrian zuzeneko kontzertua joko dute.

Lehiaketaren oinarriak eta izen-emate orria eskura daitezke www.leioa.net edo www.kulturleioa.net webgunean. ○

diskoak

Poto egin nuenekoa
Andrakan
Sinuose



60ko eta 70eko urteetako melodietan eta soinu hippy eta psikodelikoan sortutako zazpi kanta grabatu dituzte Iban Urizar, Joseba Irazoki, Jon Gurrutxaga eta beste hiru musikariek. Euskaraz eta ingelesez abestu dute abestutuz www.andrakan.com gunean entzun eta eros daitezke diskoa. Beste kanta batzuk ere prestatu dituzte aurrerago grabatzeko.

Bitxikeriak
Kasu!
Musikherria



Lau bitxikeria batu ditu Kasuk lan honetan: entzuleari eskainitako abesti bat, 2009ko Gazte Martxarako sortutakoa, "Elkarrekin" diskorako musikatutako Sarrionandiaren olerki bat eta Iruñeko 3indarrok Gazte Peñarentzako konposatutako kantua. Musikherriaren webgunean entzun eta jaits daitezke.

Transhumantzia
Etxekopar eta Rossé
Elkar



Hastapenean elkarrengandik urrun diruditen bi mundu batzen ditu disko honek: Mixel Etxekopar zuberotar kantari-xirulari sortzailearen sakontasuna eta François Rossé piano-jotzaile alsaziarraren "esku ausartak eta irudimentsuak". Baina "tradizio garaikide" izenda daitezkeen "izaera bakarreko musika-sorkuntza berrizalea urratzen dute azkenean".

koska irrata > on-line dago

Hamar urte eta nagusitu da Uribe Kostako Koska irrata, dagoeneko on-line entzun daitezke interneten: www.koskairratia.com gunean on-line entzun atala sakatu besterik ez dago, zuzenean entzungo duzu. Gainera, barrutako dator webgunea urte hasiera honetan. Atal barri bi dauzka, laranja eta gorri ondo nabarmenduak. Batean, Koska-kide egiteko aukera dago: irratiari lagundu gura dioten guztiak egin daitezke Koska-kide. Beste atalean, hamargarren urteurrenaren harira egingo dituzten ekitaldien barri emango dute, hamar urte ospatzeko modukoak dira eta. Irratian FMko 108.0an ere entzun daitezke Koska, betiko legez.

www.koskairratia.com

lehiaketa > Getxoko jazzaldia

Otsailaren 19ra arte izena eman daitezke 35. Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdiaren taldeen lehiaketan parte hartzeko. Uztailaren 1etik 5era izango da aurten Jazzaldia Getxon. Bi gunetan banatu ohi da Jazzaldia, Algortan. Ordaindu beharreko kontzertuak Biotz Alai plazan izaten dira, eta doakoak, Geltokia plazan. Oraindik ez dute zehaztu toki berberak mantenduko dituzten aurten. Ospe handiko jazz jaialdia da Getxokoa, Gasteizkoagaz eta Donostiakoagaz batera osatzen du Euskal Jazz Zirkuitua. Maila handiko musikariek bisitatu ohi dute eskualdea urtero, zer sorpresa prestatzen ibiliko dira 2011 honetarako?

info+ : www.getxo.net



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonta plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxa 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Belarri eta begietatik

Euskarazko liburuak irakur daitezke dagoeneko **sakelako telefonoan**

Parkean zuhaitz baten itzalpean liburu on bat irakurtzen une goxo asko igarotzen ditu jendeak, baina ohiturak aldatuz doaz, areago teknologia barriek gure bizitza inbaditu zutenetik. Literatura eta liburuei ere ku-ku egin diete horiek, liburu elektronikoak atera zituzten orain urte gutxi, sakelako telefonora salto egin dute orain. Eta euskara ere hasi da bere bidea egiten arlo horretan.

Ez pentsa txantxa denik. Dagoeneko euskarazko hiru liburu irakur daitezke sakelakoan: Juanjo Ollasagarre idazlearen *T-Tragadiaren poza*, Iban Zalduearen *Euskaldun guztion aberria* eta Jenny Valentinen *Violet Parken bidetik*. *Liburuak*

«Hiru liburu jaits daitezke Liburuak mugikorretan plataformari esker»

mugikorretan plataformaren bitartez eskura daitezke hirurak. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, Bluexare eta Alberdania enpresek garatu dute egitasmoa eta azken horren webgunean deskarga daitezke, ordainduta: www.alberdania.net.

Sakelako modernoak beharko direla usteko du baten batek, baina plataformaren egileek diotenez, *bluetooth* aplikazioa



Euskaldun guztion aberria liburuak

besterik ez da behar. Irakurtzeko ohitura eskasa da, zer esanik ez euskaraz. Baina gaur egun ia pertsona guztiak erabiltzen dute sakelakoa, horregatik urratu gura dituzte irakurtzeko "*bide barriak*". Izan ere, "*behin liburua sakelekorra deskargatu eta gero, edozein tokitan eta momentutan egonik ere, liburua irakurtzeko aukera dago*".

Treneko zein autobuseko bidaiaria luze-etan ez aspertzeko sakelakoagaz jolasten du askok, liburuak handiegiak omen. Orain aitzakiarik ez dago edozein unetan liburuakaz gozatzeko. ○

info+: www.alberdania.net

liburuak



Orgasmus
Askoren artean
Txalaparta

"Erasmus" belaunaldia deitu izan dute Euskal Herrian azken urteotan sortu den emakumezkoen idazle belaunaldi gaztea. Atzerrian lekutatutako istorioak kontatzen dituztelako egokitu diete izena. Gustuko ez duten izendapen horretaz barre eginez osatu dute "Orgasmus" bilduma.



Autopsiarako frogak
Koldo Izagirre
Susa

Euskarak eta euskaldunak sufritzen ditugun zapalketen hainbat adibide aurkezten dizkigu Koldo Izagirrek lan honetan, hausnarketara bultzatuz. Euskarak, herri izatearen kontzientzia ematen digula abiapuntutzat hartuz, zapalketak horregatik datozela argitu gura du.

[kirola]

Kirolaririk onena, bogan

Javi Polo Urdaibai taldeko arraunlariak irabazi du Getxoko IV. **Sasoi Sasoian saria**



Fadurako kiroldegian egin zuten sari banaketa

Getxoko 2010. urteko kirolaririk onena izendatu barri du Getxoko Udalak, IV. "Getxo Sasoi Sasoian" kirol sarien bidez. Kirolaren alde eta kirolarentzat lan egiten duten Getxoko herritarrak eta elkarteak saritzen dituzte urtero; eta aurren, Javi Polo arraunlari algortarrak jaso du lehen saria. Urdaibaiko kidea TKEko San Migel ligako eta Kontxako Banderrako egungo txapelduna da.

Epaimahaia kirol ataleko zortzi kazetari getxoztarrek osatu dute, eta Polok botoen %36 eskuratu du. Hautagaien artean lotu dira Getxo Rugby taldeko Isabel Rodriguez nazioarteko jokalaria, Jessica Rojas amazona gaztea eta Pablo Zabala bodyboard txapelduna. Banakako atalaz gain, talde mailako sariak ere banatu ditu Udalak, senior eta junior kategorietan. Galea KT, Getxo Arraun Talde-haurren 4 scull, Getxo Rugby taldea eta Bizkerre Futbol taldea izan dira saridunak.

Sari berezien atalari dagokionez, honakoak banatu dira: kirol egokituaren

"*Marka Hautsiz*" saria Jon Santacana eskizartzaileak irabazi du, ibilbide oso bati eskainitako "*Kiroltasuna*" saria Iñigo Mentxakarentzat izan da, berrikuntzen ataleko "*Getxo Berrituz*" saria Carlos Sergiok jaso du, Arenas Club-aren alde egindako lanagatik Miguel Martinezek "*Getxo Zabala*" saria eskuratu du eta "*Aitzindariak*" saria Elvira Larrazabal golf

Iñigo Ortiz de Mendibil kulturista beterranoak 'Aparteko Saria' jaso du

jokalariaentzat izan da. Azkenik, "*Aparteko Saria*" Iñigo Ortiz de Mendibil kulturista beterranoak jaso du.

Fadurako udal kiroldegian egindako ekitaldian, Imanol Landa alkateak kirola egitearen abantailak azpimarratu gura izan zuen. "*Kirolak gure herria, adiskideak eta gu geu hobeto ezagutzen laguntzen digu. Herriko gizarte-sarea sendotzen du, eta norberaren barrutik hoberena ateratzeko gaitasuna du*". Zorionak txapeldun eta hautagai guztiei! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasupe 18 - ALGORTA

Iker Martinez de Lagos > Topaguneko idazkaria

“Euskaldunon elkartearen mugimenduaren iparrak irudikatzen gabiltza kongresuan”

XXI. mendeko euskaldunon elkartearen kongresua egiten dabil Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Iker Martinez de Lagos ere buru-belarri dabil lanean otsailaren 26an burutuko den prozesurako, etorkizuneko erronkei buruz hausnartzen eta eginbeharrak zehazten.

—Duela ia 30 urte sortu zen lehenengo euskara elkarte, baina asko hazi da mugimendua ordutik.

—Arrasateko AED elkarte hartzen da aitzindari, 1983an sortua. Euskalgintzara egiteko modu eta ikuspegi barri bat ekarri zuen. Jende askok begiratu zion norbere herrian egitasmoak abiatzeko. Batez ere 80ko eta 90eko urteetan bizi izan zuten mugimenduak hazkunderik handiena, ondoren tarteka elkarteak sortu badira ere. Egund 20.000tik gora bazkide dago euskara elkartearen bueltan, kopuru polita da.

—Azkenean elkartu eta kongresua egieta erabaki duzue, zergatik orain?

—Urte batzuk joan dira dagoeneko eta bidegurutzet batean gaude. Jendarte aldatketak eta politika instituzionalak bezalako faktoreek gogoetarako beharra ekarri dute euskalgintzako erakunde askotara, eta tartean euskara elkartearen mugimendura. Zuzendaritza Batzordetik gogoeta zabaldu genien orain urtebete elkarteei, eta guztiok antzeko ustea geneukala jabetu ginen: etorkizunari begira hausnartu behar genuela. Hainbat elkartek eskatu zioten Topaguneari prozesu hori bideratzeko. Horretan ibili gara.

—Nolakoa izan da prozesu hori?

—Taldea txikian hasi eta zabalduz joan da. Adituek zein elkartearen bueltan lanean ibili



Otsailaren 26rako bazkideek izena eman dezakete kongresua.topagunea.org webgunean

den eta dabilen hamaboskoteak osatu zuten eztabaidarako oinarritzko txostena, euskaldunon elkartearen mugimenduaren oinarriak eta helburuak irudikatzeko. Ondoren, 50 lagunek ekarpenak egin zituzten eta azarotik aurrera mugimendua guztira zabaldu da. Ekarpenak eta eztabaidak egiten gabiltza eta otsailaren 26an

“Otsailaren 26an burutuko da prozesua Bilbon, bilkura nagusian”

burutuko da Bilboko bilkura nagusian.

—Zelako ondorioak bistaritzen dira?

—Hainbat puntutan adostasun handia dago. Batetik, mugimenduaren egitura-eketak eta tamainak aukera handiak ematen dizkio gauzak egiteko, indarra eta gogoia egon badago gauzak abiatzeko, urteotan metatu esperientziari esker.

Baina bestetik, egindakoan gauza batzuk osatzeko daude. Batetik, egitasmo asko eta mota askotakoak sortu ditugu, eta maila batean pertsonengan eragitea lortzen ari gara, baina urrats sendoagoak eman, eta ekintza eta eragitearen arteko indarra orekatu, askoz gehiago eragiteko. Bigarrenik, jakintza handia metatu du-

gu, baina sarritan ez dugu asmatu hori transmititzen; jakintza horren artikulazioa indartu behar dugu. Hirugarrenik, indarra egin behar dugu motibazioan eta ezagutzan eragiteko. Azkenik, mugimendua moduan ez dugu artikulazio asko izan, mugimendua moduan gehiago agertzea da erronka. ○

Fredi Paia

Santa Agedako uretan

Gure eskualdeko edadekoek esaten dabena moduan: *Santa Agedako uretan inustu eta lelengo piperrak ereiten direz.*

Neguan lurra hilik edo lo dagoan ustea sano zabala da mundu osoan. Hartzaren lozorroa, intsektuen desagertzea, eguna laburtzea eta zugatzen orriak jaustea lurra-aren loaldiaren ikur dira.

Lurragaz hartu-emonean bizi dan nekazari pentsakeran denbora zirkularra da. Ondorioz, egoera guztiak iragankorrak eta ziklikoak dira. Lurra urtero berpizten da, urtero hiltzen dalako. Berpiztea, ostera, naturagaz lotutako prozesu guztiak legetxe, apurka emoten dan aldaketeta da. Pazkoa edo Aberri Egunez, udabarriko ekinozioaren ondorengo lehenengo iretargi betearen osteko domekan, ospatzen izan da beti lurraren bezpizkundea. Erlijino bakotzak itxartze horri izen ezbardina emoten deuto, baina data berbera da Babiloniako garaietatik gaur egun arte.

Lurraren itxartze prozesua, ostera, lehenago hasten da, *Santa Agedako uretan* edo zezeilaren bostaren osteko lehenengo ilbeheran. Gure eskualdean, beste eskualde askotan lez, iretargi edo *irregiari*, nekazari lanez berba egiterakoan *urek* esaten jako. Hau da, iretargi beteari *ur bizik*, ilbeherari *ur behean* edo *uretan*, ilgorari *ur goran* eta ilbarriari *ur hilek*. Izen horreek iretargiak landareen negar, animalien odol eta bizitza prozesuetan daukan eragina azaltzeko erabilten dira. Gauza jakina da iretargiak lurragaz eta izaki bizidunakaz lotutako edozein beharri eragiten deustola.

Beraz, Santa Ageda osteko lehen ilbeheran hasten da lurra berpizten. Orduan hasten ziran lehenengo nekazari lanak: zugatxak inautu eta lehenengo landareak, piperrak gure lekuko sasoian, mintegietan ereitea.

Baina zergatik zezeilaren bosta? Ondo dakigu egund hori kristautasunaren aurretik



Kandelario lario hatxari ura dario

ospatzen zala. Erromatarrek *matronaliak*, sorgin edo parteren eguna ospatzen eben egund beratan, andrazkoek gizonezkoen

«Landareei berba egin eta abestu behar jake ernatu eta indartsu hazi daitezana»

eskubide bardinak eukiezan urteko egund bakarra. Horregaz lotuta dago Santa Agedaren mitoan bularrak ebagi izana eta santa kataniarra amen bularren edoskitze edo laktantziaren jagolea izatea.

Egunaren hautaketa ulertzeko eguzki eta iretargia sinkronizetan dituan nekazari egutegi zaharra aitatu behar dogu. Egutegi hori egubarritik hasten diran berrogei egundeko edo iretargi biko ziklotan oinarritzen da: 8 egund ilbehera, 8 egund ilgora, lau egund ilbarri eta lau egund iretargi bete, bider bi. Ziklo bakotxa hasi eta aurrekoa amaitzeko

lau egundeko erritu edo jai sasoi dago, horregatik solstizioetan egund luze edo laburrena 21ekoa izan arren, jai nagusia beti da laugarren egundekoa. Egubarritik berrogei egund igarota zezeilaren bia dator, Kandelario, argiaren jai. *Kandelario lario hatxari ura dario*, badator hatxetik ur barria edo udabarria. Hurrengo egund San Blas, ahots eta eztarriko jagolea, noski, hurrengo egundean abestu behar da eta. Abestu zertarako? Badago Europa osoan dokumentatuta dagoan sineste bat landareen, ondorioz, naturaren ganean. Landareei berba egin eta abestu behar jake ernatu eta indartsu hazi daitezana. (Itaundu etxean lorak daukazan edozein edadekori) Beraz, fotosintesirako, landareen bizitzarako ezinbesteko faktoreek: (Kandelarioko argia eta hatxari darion ur barria), gehi antxinako pentsamenduren arabera prozesu horri laguntzeko gizakiak egin behar ebana, magikoki babesitutako ahotsagaz (San Blas kordela) kanteak, osatzen dabe lurraren iratzartzearen sasoi hau. ○

[badaukazu non aukeratu]

[nora]joan

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

| | |
|--|---|
|  <p>portu zaharra bar</p> <p>Portu Zaharra kalea 35 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia) Tf. 94 460 20 33 portuzaharra@portuzaharra.com www.portuzaharra.com</p> |  <p>SOLAETXE</p> <p>Eguneko menua Jatetxea Karta Asteburuko menua Oilasko erretegia</p> <p>Sarritan azoten 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com</p> |
|--|---|



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitaratekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna

Mariandresena 1, Algorta

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Haragia eta arraina

Sirenoan oinarritutako pintxoa Algortan



Portu Zaharra tabernan jan daiteke pintxoa, besteak beste

Itsasotik tabernetara salto egin du *Sirenoak* Algortako Portu Zaharrean. Ardoaren lurrinak erakarrita nonbait, Getxophoto argazki jaialdiaren argazki ezaguna bueltan da portuan. Marcos Lopez argentinararen *Sireno del Rio de la Plata* lana urtebete lotuko da eta ongi etorri esan diote bere irudian oinarritutako pintxo bategaz: Sireno pintxoa.

Fernando Canales eta Paul Ibarra Bilboko Euskalduna jauregiko Etxanobe jatetxeko sukaldariek sortu dute eta Portu Zaharraren inguruko bost tabernatan dasta daiteke: Itsas Bide, Portu Zaharra, Arrantzale, Txomin eta Usategi.

Gainera, *Sirenoaren* gustura egin dute. Otarrainxka, oilasko eta algakaz egindako kebab misto brotxeta bat da pintxoa, eta ogia bustitzeko, euskal ket-

chupagaz lagundu dute. Baratzeko tomateak eta piper txorizeroak, antxoa gatzetan, ezitia eta garagardo-ozpina dauka euskal ketchupak. Ontzi berezi bat ere sortu dute pintxoa zerbitzeko.

Getxophotoko lagunek azaldu dute-nez, *Sirenoa* portuaren inguruagaz orekaz ahokatzen da eta batak besteari elkarri eragiten diote; izan ere, kaiaren horman jarri dute argazki-lana, mareek estal eta desestal dezaten. Portu Zaharreko agente sozialakaz eta Getxoko Udalagaz elkarlanean antolatu dute ekimena.

Pintxoa dastatu gura baduzu urtean zehar izango duzu aukera, *Sirenoa* Argentinara itzuli edo Kopenhagueko sirena ikustera joan baino lehen. ○

info+: www.getxophoto.com

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Etxekia, Gabele erailduen aurrean • LEIOA



BASTARRENTA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobasa 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTEUA
Amilano z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prensa - Frutzu lehenak - Aldizkariak - Lincamariak

Ordufa Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 450 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 FM

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Negua baino, udabarria ematen du honek eta barruraino sartu zaizu zuri. Oparitutako soinekoagaz dotore zaude, baina jar zaitetz zuzen, jantzia gehiago luzituko duzu-eta!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Laster urteak beteko dituzu eta maiteminduta zabilzanetik, begiek fiir-fiiir berezia egiten dizute. Urzi kotxean zirriak egiteari, auzokideren batek ikusi orduko.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Lanpostu barria eskainiko dizute enpresa lehiakide batean eta zure nagusiek soldata igoko dizute, zure sormena galtzeko beldurrez. Poltsikoan daukazdu!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Piztu argia eta urten ilunetatik, bada garaia-eta! Urtea joan da eta badator sasoi barria, beraz, alboratu buruhaustea eta jantzi koloreak, bizitza pare bat egun besterik ez dira!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
"Marixu nori zoaz, eder galant hori?". Ez da iritsi primadera, baina zu loratu zara. Burua galduta eta hankak saltoka zabilza, enamorata? Gozatu unea, horrelako aukera asko ez dira sortzen gurean.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aspaldi ikusi bako lehengusinagaz topo egin eta emozioen emozioz, trikitixa bikotea osatuko duzue, Amañur-i lekua hartu guran, udabarriko kontzertuei begira.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Lagunak eta auzokideak zoratuta daukazazu biolinagaz. Martxa hartu arte hobe zenue landa eremu zabalean praktikatu, edo bestela, belarrietarako tapoiak oparitu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Altxa sofatik eta ernatu! Gabonak aspaldi joan ziren eta turroia jan besterik ez duzu egiten, eskaintza dagoenaren aitzakiapean. Dagoeneko Eroskiko apala hustu duzu zuk bakarrik...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Loteria tokatu zaizu, zorianak! Baina hainbeste zorregaz, apurrak besterik ez zaizkizu geratuko. Gozatu garagardo horiekaz, beste ezertarako ez daukazu-eta!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lirain eta eder hasi duzu urtea, denak txorrituta daukazazu. Baina oreka mantendu behar eta diru kontuek loa kentzen dizute. Hainbeste zuriketa, kolorea galduko duzu!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Footing, puenting, rafting, streaching, kick boxing, e.a. egiten zabilza zoroen moduan. Ez egizu denbora gal, Gabonetan egindako sofin guztia ezin duzu gainditu astebetean.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zuri ere soldata igoko dizute, baina ez uste zenuen beste, ez duzu horrenbesterako sormenik-eta. Sardea hartu eta maxina zaitetz. Kontuz nogaz lo egiten duzun, gauze orso bihurtzen baita.



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu
KIOSKOAN: Hilabetero 2,5€ ordainduta BERRIA egunkariarekin batera
ETXEAN: Harpidetza eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta. Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONUZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

HITZ GURUTZATUAK

| | | | | | | | | | | |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1 | | | | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | ■ | | | |
| 3 | | | | | | ■ | | | | |
| 4 | | | ■ | | | | | | | |
| 5 | ■ | | | | | | | | ■ | |
| 6 | | ■ | | | | | | | | ■ |
| 7 | | | | | | ■ | | | | |
| 8 | | | | ■ | | | | | | |
| 9 | | | ■ | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | | |

Ezker eskuma

1. Ezin pentsatuzko, ezin irudituzko. 2. Nafarroa eta Gipuzkoako ibaia, Oria ibaiaren adarra. Euskal sindikatuetakoa bat. 3. Ukuiluko goialdeko lastategi edo belategi. Ez zuzen, bihurri. 4. Esako biztanle. Izanikoak. 5. Irrikatuz, irrikan. Lehenengo bokala. 6. Mila, zenbaki erromatarren arabera. Erregea. 7. Onez..., fede onez, asmo onez. Akabo, amaitu da. 8. Tinko, tinko, finki. Aldapa, aldats, malda. 9. Modua, tankera. Eleberria. 10. Toponimiak.

Goitik behera

1. Kiroletan, pilota edo baloia beste baten eskura ipini. Geldo, mantso. 2. Hitz egin, jardun. Ene, neure. 3. Nabariak, inolako azalpen edo frogarik gabe berez ikusten, sumatzen edo ulertzen direnak. 4. Pitxerrak. Urnioaren ikur kimikoa. 5. Dozena erdi. Tirologo ibaia. Naizen hau. 6. Ar-tsenikoaren ikur kimikoa. Bizkaiko ibaia. Alaitasun. 7. Bigarren bokala. Konturatu gabe, sumatu gabe. 8. Ba..., bazuten haien berri. 9. Biloa. Saila, arloa. 10. Aulestiko auzoa. Garai batean hala esaten zieten zakurrei.

Soluzioa

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | V | N | E | Z | I | U | K | E | L |
| V | L | E | B | O | N | V | E | R | A |
| R | V | L | P | K | N | I | T | I | O |
| O | T | I | K | N | V | E | N | O | |
| V | K | R | V | N | O | M | A | M | |
| A | Z | V | K | I | R | I | R | | |
| K | V | I | H | O | R | S | A | E | |
| R | K | E | O | K | A | B | A | S | |
| L | A | E | L | X | E | S | V | A | |
| N | Z | E | S | A | E | N | T | P | |

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan du izena
Nekane Juradoren
azken liburuak?

*Itsasoko zein
pertsonaia ikus daiteke
5. orrialdeko irudian?*

- **Bob Esponja**
- **Sirenoa**
- **Karramarroa**

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Martinez
> Irabazlea: **Joanes Mentxakatorre***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

> Aurrekoaren erantzuna: Olentzero
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **NORA** LIBURUA



hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan

SARIA **BERRIA**



Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



LUISMI SERRANOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

BERANGOKO IKASTOLA, 1978

"**Aterik ate** ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz" kantatzeko prest hor ditugu Berangoko ikastolako gurasoak (amak, zehatzagoak izateko) eta seme-alabak. Argazkia eliza eta udaletxearen artean aterata dago; atzealdean ikusten dena, oso lainotuta bada ere, abadetxea dela antzeman daiteke. Agate Deuna dela eta ohitura ezberdinak izan dira Euskal Herrian: kanpai-jotze luzeak, ermitetan erromeriak...; egun makilaz lagunduta koplak kantatzea eta dirua biltzea da ohiturarik zabalduena eta horretarako urten ziren berangoztarrak, diru apur bat lortzeko "Simon Otxandategi" ikastolaren alde. ○

Gurasoak: Kontxi Garai (GB), Maite Royo, ??, Kontxi Aurrekoetxea, M^a Nieves Gurtubai, Joseba Sanchez (amaren besoetan), Angelita Eguskiza, Arantza Iturregi, ??, Txaro Ruiz, ??.

Umeak: Oskar Uranga, Itxaso Zelaia, Olabarrieta, ??, Oskar Beraza, ??, Jokin Aresti, Ainara Sanchez, Amaia Nikolas, Aketza Sanchez, Eleder Carrasco, ?? (bere atzean dagoena), Gorka Serrano, Sendoa Altonaga, ??, ??, Ixone Legarreta.

MIREN URKIOLA > harrijasotzailea

“Txikitan hegazkinetako azafata izan gura nuen”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Burugogorra eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Egia esateko, aspaldian ez dut filmarik ikusi, baina beldurrezko edozein pelikulatan parte hartu gura nuke.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Kirolagaz harremana duen edozein beharretan.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Hegazkinetako azafata.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Familiagaz egunpasa Urbiara joaten ginenekoa.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Lo egitea gehiegi gustatzen zait.

Zerk ematen dizu beldurra?

Bakardadeak.

Aitor dezakezun bizio bat.

Zigarroak.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Eskoziara barrira joango nintzateke. Idiazabalgo autodeterminazioaren aldeko herri ekimenagaz joan ginen erakustaldia egitera.

Eguna ala gaua?

Gaua. Tabernan gauetz egiten dut behar eta ohituta nago, giro hori asko gustatzen zait.

Zein da zure ametsetako bat?

Idahora joatea euskal festetan parte hartzera, eta noski, bertan ere parranda egitea.

Parrandarik politenak non?

Lekeitioko antzarretan. ○

LABURREAN— 14 urte bete zituenean hasi zen Miren Urkiola (Markina-Xemein, 1988) harriak jasotzen, gurasoen lagun batek animatuta. Geroztik, herri-kirolagaz lotuta egon da bolibartarraren egunerokoa. Mari Jose Sardon urnie-tarragaz batera, erreferente bihurtu da harrijasotzaileen munduan, eta iaz marka barria egin zuen, 133,2 kiloko harria altxatuta. Sei hilabetez jardun barik ibili da belaunean ezinegona izan duelako, baina martxoan, Milanera joango da Idoia Etxeberriagaz batera, Italiako telebistaren “Record Guinness” programan parte hartzera.

ERANDIO ELIZATEKO UDALA

2011 X.
IPUIN LEHIAKETA

III.
Bertsopaper
lehiaketa

Azken eguna:
2011ko apirilaren 8a

Adin guztietako erandioztarrek edo/eta herriko ikastetxeetako
ikasleek har dezakete parte

Oinarriak:
Euskara zerbitzuan
Herriko ikastetxeetan
eta www.erandio.net webgunean

EUSKARA ZERBITZUA

Babestek: BFA DFB

ERANDIO ELIZATEKO UDALA

Irailaren 23a plaza - 48950 ERANDIO - 94 489 01 28 - euskara@erandio-udala.net

euskara ahoaan



Getxo
bizi erraza



EUSKARA BIZI



EMAIOZU EUSKARA eta EUSKARA AHOAN

Familia bidezko euskararen jarraipena bultzatzeko kanpainak

EMAIOZU EUSKARA kanpaina jaioberrien gurasoentzat da. Alkatearen eskutitzarekin batera, aholkuak jasotzen dituen liburuxka, adur-zapia eta "Txikia izanik" kanten CDa bidaltzen zaizkie. Aurten, ia 700 gurasok jasoko dute kanpaina. Kanpaina hau duela 9 urte jarri zen martxan eta urte hauetan guztietan Getxoko 5.000 jaioberrik jaso dute.

Familia bidezkoa delako euskara jasotzeko modurik naturalena, errazena eta eragingarriena
EMAIOZU EUSKARA

EUSKARA AHOAN kanpaina urtebeteko umeak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Kasu honetan, besteak beste, eskutitza e

ta aholkuekin batera askari poltsa eta "Ku-Ku" liburuxka eta CDa jasoko dituzte.

Azken datuen arabera, Getxon, ama hizkuntza euskara %12k du, duela 20 urte baino 3 puntu gehiago. Kopuru horiek asko igotzen dira 2 eta 4 urte bitarteko umeen kasuan, ia lautik batek duelako euskara ama-hizkuntza. Astiro baina etengabe hazten ari den datua da hori.